



2019

LITERATUR LEHIAKETA 2019
ORIO

ESKOLA-UMEEN

LITERATUR LEHIAKETA 2019

ORIO



Azala: Juan Parada
Legezko gordailua: SS 477/88
Inprimaketa: Bizker grafikak (Lasarte-Oria)

Aurkibidea

<i>Hitzaurrea. Rosi Lazkano</i>	5
<i>Nire aita maitea. Aya Nait</i>	7
<i>Eskola-kirola. Aritz Ortiz de Guinea</i>	9
<i>Martetarrak Orion. Irati G. de Txabarri</i>	11
<i>Edmundoren abentura. Unai Goikoetxea</i>	12
<i>Gaixo. Alba Golderos</i>	17
<i>Euriak utzi nau bustita. Oier Iruretagoiena</i>	19
<i>Pirata ospetsuaren istorioa. Julen Altuna</i>	20
<i>Unairen bizitza. Oier Iruretagoiena</i>	21
<i>Familia. Hodei Gastiain</i>	23
<i>Denbora. Maddi Etxeberria</i>	25
<i>Maria eta estolda misteriotsua. Itxaso Albeniz</i>	27
<i>Webeko abentura. Nahia Blanco</i>	31
<i>Himalaian. Manex Guenetxea</i>	35
<i>Oria ibaia. Amaiur Sukia</i>	37
<i>Txinako izarren bihotza. Amine Benabdallah</i>	41
<i>Ezberdinak. Amaiur Sukia</i>	43
<i>Nire atzoko gaua. Nora Agirresarobe</i>	47
<i>Eguna. Garazi Unanue</i>	49
<i>Eguneroko maitea. Itxaso Ayerbe</i>	51
<i>Ani eta lagunak. Kattalin Zinkunegi</i>	59
<i>Malkoak. Ines Duran</i>	63
<i>Harri-jasotzaileak. Udane Ostolaza</i>	65
<i>Oporrak eta itxaropena. Irene Alberdi</i>	67
<i>Ahaltsuak. Blas Esnal</i>	73
<i>Zuk ez dakizu. Joana Lertxundi</i>	83
<i>Sentimenduen borroka. Candy Ostolaza</i>	83
<i>Piramideen sekretua. Axel Palau</i>	85
<i>Arto-soroa. Maxe Zinkunegi</i>	89
<i>Martxoak 8. Marwa Elghailani</i>	91
<i>Natura. Jon Marquez</i>	93
<i>Nortasun galdua. Malen Albeniz</i>	95
<i>Bizitzaren amildegian. Naroa Arriaran</i>	100

Hitzaurrea

Literatura-lehiaketaren
hitzaurrea, alajaina!
Ohore eta motibazio,
zer nahasketa bikaina.
Bestsellerrera iritsitzea
ez dago erraza, baina
izan gintezke oriotarren
begiak pozteko adina.


Lehiaketa bat lehia dugunez,
honetara garamatza:
alde batetik aukera dena
bestetik erronka latza,
urtero elkarreratzen gaitun
haria eta orratza,
sormenez eta inspirazioz
konpontzeko esperantza.

Rosi Lazkano

Nire aita maitea

Nire aita maitea,
zu gabe egunak dira aspergarriak.
Beti-beti egiten duzu
nire gustua.
Horregatik zaitut maitea.
Zurekin orduak
pasatzen ditut gustura.
Eskerrik asko
honegatik guztiagatik.

Aya Nait



Aimar Aizpurua

Eskola-kirola

Larunbat goizean esnatu,
indarra hartzeko ondo gosaldtu!

Aurpegia eta hortzak garbitu,
ikastolako kamiseta prestatu,
etxetik atera eta autobusa hartu.

Partida aurretik ondo berotu;
partida hasita, topera saiatu.

Korrika eta korrika, egin gara izerditu.
Berdin zaigu irabazi edo galdu:
bostekoa eman eta partida bukatu.

Rakelek eman dizkigu 15 puntu,
lagunekin hamaiketako partekatu;
goiza polita pasatuta, etxera bueltatu.

Autobusetik atera eta lagunak agurtu:
gingo al gara arratsaldeko 16:30ean geratu?
Itxoiten nago hurrengo larunbata noiz ailegatu.

Aritz Ortiz de Guinea



Alex Barranco

Martetarrak Orion

Bazen behin Mikel izeneko mutil bat, oso bizkorra eta ausarta zena.

Egun batean Orioko moilan zebilen, bainatzen bere lagun Ikerrekin. Bainatzen ari zirela, argi distiratsu bat ikusi zuten eta, gero, Marteko plater hegalarari bat.

Kukuarrira igo zen plater hegalaria.

Korrika-korrika igo ziren Kukuarrira eta justu-justu ailegatu ziren.

Mikel eta Iker ailegatu zirenean, martetarrak jaitsi ziren plater hegalaritik. Lehenbizi jaitsi zen martetarrak esan zuen:

—Papalalakakata.

Gero, euskaraz zekien martetar bat jaitsi zen, eta esan zuen:

—Hor ikusi duzuen martetar hori nire nagusia da eta esan dizue bakea eskatzera etorri garela, eta janari bila. Ikusten dudanez, bake handia dago hemen.

Orduan, Mikelek eta Ikerrek lanari ekin zioten eta janariaren bila joan ziren.

Bukatu zutenean, esan zuen martetar batek:

—Zuetako bat ere atsegin handiz eramango genuke urte baterako.

Mikelek azkar atera zuen burua, esanez:

—Ni joango naiz.

Orduan, neskatxa bat atera zen jende artetik. Mikelen arreba zen: Nora.

—Ez zaitetz joan, aitak eta amak faltan bilatuko zaituzte eta nik ere bai.

Mikelek besoetan hartu zuen eta esan zion:

—Nik ere faltan bilatuko zaituztet; baina, lasai: hemendik urtebetera ikusiko zaitut. Zu lasai; ez da ezer pasatuko.

Norak baietz esan zion, lasai egongo zela, eta amari eta aitari esatera joan zen.

Arratsalde hartan plater hegalarira igo ziren Mikel eta martetarrak.

Martera joan zirenean, martetar batek Marte erre zuen, eta milioika plater hegalariren bidez, Oriora etorri ziren martetar denak.

Kontuz ibili! Harrezkero hemen daude-eta!

Irati G. de Txabarri



Mikel Barranco

Edmundoren abentura

Bazen behin gizon bat, Edmundo izena zuena. Barku bateko kapitainaren laguntzailea zen.

Edmundok neska-lagun bat zuen, Maria izenekoa, eta Mariak bazuen lehen-gusu bat, Jon izena zuena. Jon polizien nagusia zen eta nahi zuen guztia egiten zuen.

Egun batean Edmundo Ameriketatik zetorren. Barku batean etorri zen eta, barkuak bandera erdian zuenez, notizia txarren bat zekarrela esan nahi zuen horrek.

Maria kezkatu egin zen. Portura iritsi zirenean, Edmundo barkutik atera zen eta Maria lasaitu egin zen. Barkuko nagusia Edmundorengana hurbildu zen eta esan zion:

—Zer gertatu zaizue?

Eta Edmundok erantzun zion:

—Kapitaina hil egin zaigu eta, hil aurretik, papertxo hau eman dit: *Hemendik aurrera zu izango zara kapitaina.*

Jonek jakin zuen Edmundok paper hori zuela eta esan zien beste poliziei:

—Uste dut Edmundok hil duela kapitaina.

Jonek Mariarekin ezkondu nahi zuen eta, beraz, munduko kartzela txarrenera eramane zuen Edmundo, *Hiltzeko kartzela* deitzen zioten batera. Baina Maria haurdun zegoen. Edmundo eta Mariaren umea zen eta, jaio zenean, Oier izena jarri zion.


Jonek Mariarekin ezkontzea lortu zuen: senarrik gabeko ama izatea gaizki ikusia zegoen eta Mariak ez zuen beste aukerarik izan.

Urteak pasa ziren eta Edmundok ez zekien Mariak umetxoa zuela. Oierrek zortzi urte bete zituenean, Edmundok oraindik kartzelan jarraitzen zuen.

Egun batean Edmundok zaratak entzun zituen behin eta berriz kartzelako lur azpian. Denbora luzez entzun zen zarata hura eta, halako batean, apaiz bat atera zen bere ondo-ondoan.

Edmundok galdetu zion:

—Nolatan atera zara hemen?



Ariane Gaztañazpi

—Ihes egiteko nire kalkulu guztiekin, uste nuen kanpoko aldera nindoala eta hemen atera naiz!

Edmundok erantzun zion:

—Lasai! Orain badakizu beste aldera egin behar dela zuloa eta bien artean egingo dugu!

Apaizak gauza pila bat erakutsi zizkion Edmundori: ezpatarekin borroka egiten, matematika, borrokarako prestakuntzak...

Tunela egiten jarraitu zuten pixkanaka. Egun batean apaizak bere gurutzetik mapa bat atera zuen eta esan zion Edmundori:

—Begira, Edmundo: hau Monte Kristoko mapa da. Ni hiltzen banaiz, hartu gurutze hau eta egin ezazu ihes eta joan zaitez mapa honek eramaten zaituen tokira.

Urteak pasatu ahala, Oier handitzen joan zen, eta uste zuen Maria eta Jon bere gurasoak zirela.

Edmundok, bitartean, apaizarekin tunela egiten jarraitu zuen eta gauza asko ikasi zituen hari esker. Egun batean, tunelean lanean ari zirela, sabaiaren puska handi bat erori zen apaizaren gainera. Edmundok bere gelara eramanean apaiza; hautsak eta odola garbitu zizkion, baina apaiza hil egin zen.

Poliziak apaizaren gelako atea jo zuenean platera eskatzeko, apaizak ez zuen erantzuten. Behin eta berriz jotzen aritu ziren eta, azkenean, atea ireki zuten; baina, ordurako, Edmundok tuneleko zuloa tapatzea lortu zuen.

Apaiza hilda zegoela konturatu zirenean, zaku batean sartu zuten. Poliziak urrundu zirenean, Edmundok apaizaren gurutzea hartu eta, bera sartu zen zakuaren barruan, apaiza gelan utzita. Beranduago, atea ireki eta poliziek hamar metro altuerako pareta batetik bota zuten Edmundo itsasora.


Edmundok lortu zuen zakutik eta soketatik askatzea eta, igerian, hondartza bateraino iritsi zen; iritsitakoan, neka-neka eginda, konortea galdu zuen.

Esnatu zenean, konturatu zen pertsona batzuk zeuzkala ondoan eta zutitu egin zen. Edmundok galdetu zuen:

—Nortzuk zarete zuek?

—Ni Jon Silber pirata naiz, eta orain gure esklaboa izango zara.

Egun batzuk geroago, itsasora atera ziren Jon Silber pirata, bere marinela eta Edmundo. Itsaso barrenean zeudela, beste barku bat ikusi zuten urrutian eta hura abordatzera joan ziren. Barkura salto egin eta borrokan egin zuten, irabazi eta denak errenditzea lortu zuten arte. Jon Silberrek barku hartako pertsona indartsuenak hartu zituen beretzat eta haietako batek Anubis izena zuen.



Alba Golderos

Jon Silberrek hondartza batera eramán zituen, eta beren artean borrokatzera behartu zituen. Edmundok Anubisekin egin zuen borroka eta Anubisek izugarrizko ebakia egin zion Edmundori. Orduan, Edmundok lepoan jarri zion labana eta esan zuen Anubisek:

—Ez hil, ez hil, mesedez!

Eta Edmundok erantzun zuen:

—Ez dut hilko, ni bezalako pertsona bat da-eta.

Orduan, Jon Silberrek libre utzi zituen biak. Gero, Edmundok maparena kon-tatu zion Anubisi eta, bien artean, altxorra aurkitu, banatu eta etxera itzuli ziren.

Jon kartzelan sartu eta Edmundo eta Maria zoriontsu bizi izan ziren.


Unai Goikoetxea

Gaixo

Hemen gaude, kaixo!
Biok gaude gaixo,
eztarrían dugu mina
eta mukizapia, zikina.

Hemen gaude etxean
eta lotan, ohean.
Handia da pastilla,
lurrean zapatilla.

Alba Golderos



Markel Peña

Euriak utzi nau bustita

Euriak utzi nau
ni oso bustita,
eta joan egin naiz,
txaketa jantzita.
Ni hotzez hil naiz,
kalean utzita,
etxean nago-eta
arropak erantzita.

Dena erantzitakoan,
sartu naiz dutxara,
eta, garbitutakoan,
joan naiz salara.
Begiratu dut leihora
eta zaparrada,
sartu naiz sukaldera
eta hartu dut kutxara.

Oier Iruretagoiena

Pirata ospetsuaren istorioa

Bazen behin pirata bat, Potxoko izena zuena. Begi beltzak eta ile marroia zituen Potxokok. Barrutik maltzurra zen. Egun batean itsasora abiatu zen bere itsasontzian eta arrain-mota asko ikusi zituen.

Irla bat ikusi zuen, baina kolore grisa zuen eta arraroa zen. Ondoko irlan jendea beldurtuta zegoen eta Potxokok ez zekien zer gertatzen zen. Albora begiratu eta pirata maltzur bat ikusi zuen. Irla grisean jarri zen Potxoko eta jendeak esaten zion handik kentzeko, arriskuan zegoelako. Gero hortz zorrotz batzuk ikusi zituen eta beste irlara joan zen.

Irla grisa marrazo handi bat zen, ez irla bat!

Gero Potxoko konturatu zen beste piratek bera eta gainontzeko pertsonak hil nahi zituztela eta, hori ez gertatzeko, piratengana joan zen.

Potxoko beste piratekin borrokan hasi zen eta marrazoaren sabelean bukatu zuen. Barruan zegoela, marrazoaren tripa itsasontziz beteta zegoela ikusi zuen. Potxokok, zer egin ez zekiela, pentsakor gelditu zen. Bost ordu geroago marrazoa mugitzen hasi zen arrainak jatera eta Potxokori ideia bat bururatu zitzaion: marrazoa arrain bat jatera zihoanean, kilimak egingo zizkion eta, hartara, bota egingo zuen Potxoko bere sabeletik, barrez hasiko zelako.

Orduan, marrazoa arrain bat jatera zihoan eta Potxokok kilimak egin zizkion barruan; baina, itxuraz, marrazoari ez zion graziarik egin eta ez zen mugitu.

Gero beste arrain bat jatera zihoan eta kilimak gogorrago egin zizkion; baina, hala ere, ez zen mugitu ere egin.

Azkenean, kilimak ahalik eta gogo eta intentzio gogorrenarekin egin zizkion eta marrazoak ez zuen beste erremediorik izan barrezka hasi eta Potxoko botatzea baino. Potxoko, orduan, ziztu bizian igerian hasi zen. Izurde batek gainean hartu zuen eta bizitza salbatu zion, uretatik kanpora eramanez.

Uretatik atera zenean, pirata maltzurra ikusi zuen berriro. Orioko herrira zihoan, konkistatzeko asmoz, eta hori lehenbailehen geratu behar zuen Potxokok. Harengana joan zen eta, oraingoan, Potxokok bere amorrua atera eta irabazi egin zion borroka. Orduan, ez zuen Orioko herria konkistatu eta hango jendea lasai geratu zen.

Handik aurrera, jendea Potxoko animatzen eta animatzen egon zen denbora guztian eta, azkenean, Potxokoren estatua bat egin zuten Orioko Goiko Kalean.

Julen Altuna

Unairen bizitza

Egun batean Unai ikastolara joan zen. Berria zen eta ez zuten ondo tratatu. Etxera iritsi zenean, nahiko kexa izan zituen bere gurasoekin. Gurasoek esan zioten aurrera jarraitzeko eta aurrera jarraitu zuen Unai. Hurrengo egunean matematikako azterketa oso zaila eduki zuen eta bere gelako bakarra izan zen hamarra atera zuena. Orduan, ospe handia hartzen hasi zen gelan.

Batxilergoan hasi zenean, zaila iruditu zitzaion; salto handia zegoen, baina denborarekin gero eta hobeto joan zitzaion. Unibertsitatean medikua izatea erabaki zuen; baina zaila zen berarentzat eta gehiago saiatu zen. Azkenean, lortu zuen medikua izatea. Operazio asko eta beste hainbat gauza gehiago egin zituen eta asko ikasi zuen.

Unai, gaur egun, 40 urte ditu eta ospetsua da Euskal Herrian. Espainian eta Europan ere bai. Familia dauka: andrea eta bi ume bizki, 12 urtekoak, eta, gainera, neska bat, 8 urtekoa.

Unai 57 urte egin zituen atzo, eta bere hiru seme-alabak ere ezkondu daude. Seme-alabak Unairen etxera joaten direnean, aita bere istorioak kontatzen dizkie eta gustura entzuten dituzte.

Urteak pasatu dira eta Unai 75 urte dauzka eta bere hiru seme-alabek aspaldian izan zituzten umeak. Unai oso harro dago bere seme-alabez, berak bezala ez dutelako inoiz etsi.

Urteak badoaz eta 85 urtetara iritsi da Unai eta ez da ateratzen etxetik, oso flojo dagoelako. Bere azkenengo mementoak ari da bizitzen.

Unai 90 urte dauzka eta gaur hil egin da. Bere familia oso triste dago; baina, eliza hain beteta ikusita, poztu egin dira.

Unairen familian beste haur bat jaio da eta izena Unai jarri diote.

Oier Iruretagoiena



Alba Rueda


Familia

Ez dago familiak baino gehiago maiteko nauenik.
Familiak maitatzen nau gehien, bai;
anaiarekin haserretzean,
berak baino min gehiago hartzen dut.

Sekretuak inork baino hobeto gordetzen ditu.
Zerbait gaizki egitean, ez du barre egiten;
sentitu egiten du, ordea;
bere barkamena dut beti
eta beti onena opa dit.

Familia da dudan onena,
gaixo nagoenean zaintzen nauena.
Hori da familia, nire altxorrik handiena!
Esker mila, familia!

Hodei Gastiain



Lander Uranga

Denbora

Hirurogei segundo
minutu batean,
hirurogei minutu
ordubetea.

Hogeita lau ordu
egun batean,
zazpi egun
astebetea.

Zeinek zenbatzen du urtea?

Denbora
pasa egiten da;
baina ez da
denbora-pasa bat.

Tik-tak...
ez dago
atzera-bueltarik.

Tik-tak...
denbora
ez da jolasa.

Maddi Etxeberria



Asier Basurko

Maria eta estolda misteriotsua

Bazen behin Maria izena zuen neska bat. 12 urte zituen, saskibaloian ibiltzea gustatzen zitzaion, bideo-jokoetan ibiltzea ere gustuko zuen eta anaiarekin eta gurasoekin batera bizi zen Parisetik gertuko herri batean. Anaiak 7 urte zituen, Xanti izena zuen eta oso bihurria zen. Gurasoak Marisa eta Joxe Manolo ziren.

Egun batean Mariak saskibaloiko txapelketa bat izan zuen. Finalera sailkatu ziren eta, sari gisa, bere talde gustukoeneko jantzia eta Pariseko zinema baterako sarrerak eman zizkioten. Jantzia segituan estreinatu zuen; baina oraindik ez zekien zinemara noiz joan, txartelak ia aste oso bat mahai gainean geratu baitziren ukitu ere egin gabe.

Behin Maria bideo-jokoetan ari zela, aita sartu zen mahaia garbitzera eta sarrerak ikusi zituen.

—Zer egingo dugu sarrerekin? Hor bertan uzten baditugu, beranduegi egingo da eta ezin izango gara joan —esan zuen Joxe Manolok, eta amarekin hitz egin zuen.

Azkenean, Joxe Manolok eta Marisak erabaki zuten larunbat arratsaldean joango zirela zinemara.

Eguna iritsi zenean, autoa arrankatu eta Parisera abiatu ziren. Aretoan sartu baino lehenago...

—Aita, ama... txutxeak eroatera joan nahi dut! —esan zuen Xantik.

—Ondo da. Segi —laga zioten gurasoek.

Gozokiak erosi zituzten eta, filma hastear zegoela, ateko gizonari sarrerak eman eta salara sartu ziren. Eserleku asko zeuden; baina berak goialdean eseri ziren. Pelikula fantasiatzko oihan liluragarri batean gertatutakoari buruzkoa zen eta maitagarriak, munstroak, dinosauroak, iratxoak eta abar agertzen ziren.

Maria konturatu zen txutxe-dendako atearen aldamenean ahaztu zitzaizola bere poltsa eta amari esan zion.

Amak bila joateko esan zion. Orduan, Maria zinema-aretoetik atera zen eta poltsa aurkitu zuen. Komunera joateko aprobe txatu zuen eta, ateratakoan, irteerako ate nagusia ikusi zuen aurre-aurrean. Kalera irteteko gogo sartu zitzaion eta atera egin zen.

Eskua poltsikoan sartu zuen, hotza egiten zuen-eta! Sartu zuenean, zerbait ukitu zuen, eta handik bost euro atera zituen. Kaleko azoka batean gastatu zituen, izozki bat eta giltza bitxi batzuk erosiz. Izozkia azkar bukatu zuen, oso goxoa baitzegoen,



Jinhan Chen

eta giltzak poltsan gorde zituen, ez galtzeko. Paseatzen zihoan kalean barrena eta besteak bezain normala ez zen estolda baten barrutik zetozen builak entzutea iruditu zitzaion. Jakin-mina sartu zitzaion. Estolda irekita zegoen eta Maria barrura sartu zen, nazka eman bazion ere. Barruan bidetxo bat zegoen. Mariak oinez jarraitu zuen eta, azkenean, bi pertsonekin egin zuen topo.

—Kaixo... Zein zarete? Zer egiten duzue hemen? —galdetu zuen.

—Kaixo! Gu Nahia eta Xabi gara, eta zu zein zara? —galdetu zuen mutikoak izu-aurpegiz.

—Bai, ni Maria naiz.

—Nondik atera zara? Sekulako sustoa eman diguzu!

—Oihuak entzun ditut eta, zer gertatzen den jakiteko, sartzea erabaki dut —azaldu zuen Mariak—. Zer gertatzen zaizue, ba, buila horiek ateratzeko?

—Kaletik gindoazen eta estolda arraro hau ikusi dugu. Harritu egin gaitu eta barrura sartu gara. Oinez jarraitu dugu, ate arraro hau ikusi dugun arte eta irekitzen saiatu gara; baina giltzaz itxita dago —azaldu zuen Xabik.

—Ni zinemara joan naiz, baina alde egin dut. Hotza neukan, eskuak poltsikoan sartu ditut eta bost euro atera ditut. Bost euroak izozki batean eta azoka xeble batean ikusi ditudan giltza batzuetan gastatu ditut. Orduan, lehen azaldu dudana bezala, oinez jarraitu dut estolda honekin topatu naizen arte.

—Etxeko giltzekin probatu dugu, garajekoekin, atarikoekin... ea zure giltza horiekin lortzen dugun!

—Sartu egingo dut, ba! —esan zuen Mariak—. BAT, BI, HIRU!

Mariak giltza sartu zuen, ezkererantz jiratu, atea ireki eta...

—UAU! —oihukatu zuen hirukoteak. Urrez betetako gela handi bat zen!

—Xabi, Maria! Ikusi hau! —oihukatu zuen Nahiak, liluraturik.

—Aberatsak gara! —oihukatu zuen Xabik ere.

Mariak kezka aurpegiarekin begiratu zuen.

—Zer gertatzen zaizu Maria? —galdetu zuen Nahiak.

—Itzuli egin behar dut, sekulako errieta jasoko dut-eta.

Anai-arrebak agurtu eta Maria zinemara itzuli zen.

—Maria, zenbat tardatu duzun! Ia pelikula osoa galdu duzu! —esan zion amak.

Mariak barre egin zuen. Eskerrak oraindik hor zeuden! Bestela, Parisen galduko zen. Filma bukatu zenean itzuli egin ziren eta, etxera iritsi orduko, Mariak egunerokoan idatzi zuen estoldaren misterioa.



Marina Gaztañazpi

Webeko abentura

Bazen behin Naroa izeneko neska bat. Mexikoko herri txiki batean bizi zen, Rio Lagartos izenekoan. 14 urte zituen. Naroa youtuberra zen eta oso gustuko zuen bere kanalean jokoetako bideoak egitea.

Estatu Batuetan Unax izeneko mutiko bat bizi zen. Bere herria ez zen oso ezaguna: Austin. Unaxek 18 urte zituen. Bera ere youtuberra zen eta denetako bideoak egiten zituen: erronkak, jokoak eta abar.

Ozeano Atlantikoa zeharkatuta, Euskal Herrian, bazen Manex izeneko mutiko bat. Arabako herri batean bizi zen: Laguardian. Berak, aldiz, 16 urte zituen. Bai, bera ere youtuberra zen eta, Naroak eta Unaxek bezala, oso gustuko zuen jokoetako bideoak egitea.

Europan bertan bazen, azkenik, Martina izeneko neskatxa bat. Alemaniako herri ezagun batean bizi zen: Hanburgon, hain zuzen. Berak 15 urte zituen. Martina ere youtuber bat zen eta, batez ere, zuzeneko bideoak egitea zuen gustuko. Bera, besteak bezala, beti kontu handiz ibiltzen saiatzen zen interneteko sareetan.

Lau gazteek gustu antzekoak zituzten; baina ez zuten elkar ezagutzen. Antzekotasuna hizkuntzan ere ematen zen, laurak euskaraz hitz egiten baitzuten bideoetan.

Egun batean Martina, bere joko gogokoenaren zuzeneko bideo bat egiten ari zela, Manex, Naroa eta Unax beste bideo bana egiten ari ziren memento berean. Hori bai kasualitatea!

—Ei! Ongi etorri bideo berri honetara! Ni MartinaJokalaria36 naiz eta gaur *Mineralen Bila* jokoan jolastuko naiz! —hasi zen Martina bere bideoan.

—Kaixo eta ongi etorri nire zuzeneko bideo berri honetara! Ni, dakizuen bezala, Manex naiz; baina denok Max deitzen didazue —horrela hasi zen Manex.

—Ei, ei, ei! Hemen jokalaritrebe! Gaurko egunean zuzeneko bideo bat egiten! —zeharo animaturik Unax bere zuzeneko bideoan.

—Ei, zer gertatzen da, gaztetxo? Ongi etorri zuzeneko bideo berri honetara! Ni Andele naiz eta *Mineralen Bila* jokoan jolastuko naiz! —esanez ekin zion Naroak.

Lau gaztetxoak ongi hasi ziren bideoan; baina geroxeago...

—Aaaaaaaaaaaaa! Zer ari da gertatzeeeeen? —oihukatu zuten denek batera.

—E? Zeintzuk zarete zuek? —galdetu zuen Naroak toki ezezagun batera iritsi orduko.

Toki ezezagun batean agertu ziren denak, espero ez zuten toki batean. Jokoaren barruan sartu ziren! Barru-barruan zeuden!

—Ni Manex naiz —aurkeztu zuen bere burua Manexek, beldurraren beldurrez.

—Ba, ni... ni Martina naiz... —jarraitu zuen Martinak, erabat lotsatuta.

—Ei! Kaixo. Ni Unax naiz. Zu zein zara? —galdetu zion Unaxek, lotsarik gabe.

—Ni Naroa naiz. Zuek badakizue non gauden? —galdetu zuen Naroak ere, ausardiaz.

—Mmmm... leku hau ezaguna egiten zait. Zuei ez?—aipatu zuen Unaxek.

—A! Badakit non gauden. *Mineralen Bila* jokoan gaude. Ezagutzen duzue? —esan zuen Manexek, ahopetik eta pentsakor.

—Bai, nik ezagutzen dut! Hona iritsi naizen unean zuzeneko bideo bat egiten ari nintzen —azaldu zuen Martinak.

—Baita ni ere! —esan zuten hiru gazteek batera.

—Hemendik atera nahi baduzue mineralak aurkitu beharko dituzue —agindu zuen ahots misteriotso batek.

—Zein izan da? —galdetu zuen gure lagun beldurti eta lotsatiak, Martinak.

Bat-batean beste neskatxa bat agertu zen:

—Ni Enara naiz eta mineralak aurkitzen lagunduko dizuet.

Enara beste lau gaztetxoeren egoera berean zegoen: jokoan sarturik ohartu gabe.

—Kaixo, Enara! —agurtu zuten.

—Kaixo. Zer moduz? Bueno, bueno... Orain ez gara hitz egiten jarriko; mineralen bila joan behar dugu ahalik eta azkarren.

Baina gaua iritsi zen eta kobazulo batean gelditu behar izan zuten.

Biharamunean...

—Aaa... Ederki egin dut lo kobazulo honetan —esan zuen Unaxek oraindik erdi lotan.

—Ba ni ez dut lo asko egin; mineralak non ote dauden pentsatzen aritu naiz gau osoan —erantzun zion Naroak nekatu itxurarekin.

Kobazulo ondoan zegoen zuhaitzetik sagar pare bat hartu eta mineralen bila abiatu ziren.

Handik bi ordura lur azpiko kobazulo bat topatu zuten.

—Hara! Hemen ote daude mineralak? —esan zuen Enarak, oso-oso pozik.

—Ea hor dauden eta hemendik ateratzeko aukera dugun! —oihukatu zuen Martinak. Eta kobazulora sartu ziren.

—Grrrrrrr! Grrrr ! Ez dituzue nire mineralak hartuko. Grrrr!

Denak beldurtu egin ziren.

—Hartz bat dirudi —esan zuen Manexek.

—AAAAAAA! —oihukatu zuten bost lagunek.

Zorionez, Enarak harmonika bat zuen patrikan jokoan sartu zen unean.

—Badakit! Harmonika bat dut! Beharbada, jotzen badut, hartzak lo hartuko du.

—Ideia ona! Benga! Ba, hasi harmonika hori jotzen —animatu zuten denek.

Enara harmonika jotzen hasi zen; baina, oso trebea ez zenez, hartzak, lo hartu beharrean, beldurtu egin zen eta joan egin zen.

—Bueno... joan da, behintzat, eta mineralak hartu ditzakegu. Begira! Hor daude! —esan zuen Enarak.

Mineralak hartu orduko, bat-batean, beren *zuzenean* agertu ziren. Jokoan egun eta erdi pasatu zen; baina egiazko bizitzan segundo bat besterik ez. Harrigarria benetan! Gainera, zuhaitzetik hartutako sagarrarekin agertu ziren bizitza errelera.

Handik aurrera bostak beti elkarrekin jolasten aritzen ziren eta oso lagunak egin ziren, eta elkarren artean istorio harrigarriak kontatzen zituzten.

Nahia Blanco



Elene Urrestilla

Himalaian

1.

Himalaista izan nahi
eta zure gogoei eutsi,
zortzi milako horretara
igotzeko ez zenuen etsi,
kanpo-base horretan gora
laster mendiak irentsi,
orain neure azken hitzak
Makalu puntan erantsi:
*Ikurrina gailurrean
ondo sartuta utzi.*

2.

Iñurrategi anaiak
heldu ziren gailurrera,
anai gaztea lehenago
ailegatu zen lurrera,
amildegitik beheraino
erori zen zaharra, ostera.
Ikurrina eraman nahi
zortzi milako batera,
eta orain Makalun dago
heriotzaren bandera.

3.

Hamabi igotzeko nahia
zenuen berehala,
eta Makalu igotzeko
ez zara horren makala.
Igotzea zaila izan zen,
ikurrina zeneramala,
baina mendian igotzea
da jaistea bezala:
orain sokaren jabeak
ondo ordaindu dezala.

4.
Zure heriotzak tristuran
guztiok utzi gaitu,
neure buruan mendiak
toki pila hartzen baitu.
Makalu azkenerako utzita,
lehenik Kukuarri garaitu.
Nik ere nahiko nituzke
zure pausoak jarraitu,
baina ez dut nahi mendian
zu bezalaxe amaitu.

Manex Guenetxea

Oria ibaia

Ni naiz Oria ibaia
eta hauxe da gaurko gaia:
nire herriei oinak jartzea
hori izango da nahia.

Lizarrate ta Zegama,
Zu semea ta ni ama,
ibaian gora joan naiz eta
berriro nator zugana.

Hurrengoa da Segura,
bizi naiz zure kontura,
bertatikan igarotzen zaizu
pixkanaka nire ura.

Egun on, Olaberria!
Zara hirugarren herria.
Jendea ziprizontzera dator
zure olatu berria.

Zer moduz zaude, Beasain?
Hemen al zeunden nire zain?
Industria gutxiago eta
zaindu nazazue bikain.

Hauxe dugu Ordizia,
gaur dut marea bizia.
Euskal Herrian maitatua da
baserritar merkantzia.

Iritsi naiz, Itsasondo.
Zer moduz hago? Ni, ondo!
Herri guztiak zeharkatzeko,
beharko dut nahiko fondo.

Lehorretan Legorreta,
ni neu naiz zure erreka.
Jada agur esan behar dizut,
presa pixkat daukat-eta.

Iepa, Ikaztegieta!
Zuretzako errieta...
Trena kenduko al zenukete
kutsatu egiten nau-eta?

Ale, ale... Alegia!
Txintzarrien alegria.
Arrainak dantzan datoz uretan,
pozik daude, alegia.

Begi aurrean Tolosa
Zu ikusita, hau poza!
Mozorrotuta nator igeri,
baina falta zait karroza.

Aspaldiko, Anoeta!
Itsasoa, nire meta.
Geldialdi bat egin behar dut,
marea jaitsi da-eta!

Parean daukat Irura,
Tolosaldekoa ura.
Herri polit bat lilura bada,
zu zara nire lilura.

Epa, kaixo, Villabona!
Opa dizut zoriona.
Loatzo menditik ikusten da
sekulako bista ona.

Arratsalde on, Zizurkil!
Aupa, neska eta mutil!
Baserri-giroan bizi zara,
naturatik oso hurbil.

Zugana nator, Aduna,
herri guztien laguna...
Txikia zara, berdea zara,
eta, gainera, euskalduna.

Heltzen ari naiz, Andoain,
eta pasako naiz orain...
Oria ibaiaren edertasuna
eskaintzen dizut nik dohain.

Aupa! Animo, Lasarte!
Zurekin zenbat pasarte...
Zure herriak nire izena du,
gutxienez orain arte.

Aio, banoa, Usurbil!
Jada, itsasotik hurbil...
Nik aukeratu beharko banu:
jarraitu bizi edo hil.

Azken portuan, Orio,
esaten dizut serio:
Oriok beste berrogei Kontxa
ekartzea dut desio!

Sartuko naiz itsasora,
nire heriotz kolkora,
nahiz ta bukatu zaidan bizi-tza,
aprobetxatuz denbora,
bueltatuko naiz lehengora.

Amaiur Sukia



Jon Barranco

Txinako izarren bihotza

Istorio hau antzinako Txinan gertatu zen eta bere protagonista Shin Mong izeneko nekazari bat da. Antzinako garaietan jende gehiena pobrea zen erregearen erruz, hark esaten baitzuen denek lan eta lan egin behar zutela. Garai hartan ez zegoen ez teknologiarik ez ezer; herritarrek lana besterik ez zuten egiten, atsedetik gabe.

Erregea zakarra eta gaiztoa zen. Ez zuen inolako errespeturik besteekiko. Egun batean nekazari bat atxilotzeko agindua eman zuen, atsedetik hartzeagatik. Nekazari hura, Yu Hao, oso ezaguna zen herrian eta herritarrek eta familiakoak hura askatzen ahalegindu ziren; baina alferrik, erregeak urruneko gaztelu batean itxi baitzuen.

Hara heltzeko bidea oso arriskutsua zen eta gaztelua suz inguraturik zegoen. Gaztelu hartan sartu zitekeen bakarra erregea zen, zilarrezko abaniko bat zuelako. Hura mugitzen zuen bakoitzean, tornado bat ateratzen zen eta sua itzaltzen zuen. Yu Haori bizi osorako zigorra ezarri zion.

Bitartean, Shin Mongen amonak kondaira bat kontatu zion Shin gazteari. Haren hitzetan, garai batean ying eta yang ikurrak existitzen ziren, baina borroka batean galdu egin ziren. Txinak Japoniaren aurka egin zuen gerrate hura. Bertan Txinak izarren ahalmena zuen: ying; Japoniak, aldiz, naturarena: yang. Bi ikurrek elkarrekin egin behar zuten; baina, bi herrien arteko gerraren ondorioz, ying eta yang banatu egin ziren. Horrexegatik, bi herrialdeek gerratea galdu zuten eta ying eta yang desagertu egin ziren. Kondairak esaten zuen haien bila joaten zenari zerbait tristea eta txarra gertatuko zitzaioela; baina Shin Mongek ez zuen azkeneko zatia entzun, lo hartu baitzuen, eta horregatik, biharamunean, ying eta yangen bila abiatu zen.

Denbora asko behar izan zuen ying eta yang ikurrak aurkitzeko —bi urtetik gora!—. Behin topatu ostean, etxera itzultzea erabaki zuen.

Etxera heltzear zela, zerbait arraroa ikusi zuen. Shin Mong oso triste jarri zen, bere familia atxilotzen ari baitziren. Familia osoa Yu Haoren gaztelu berera eraman zuten.

Shin Mongek izarrei galdetu zien gaztelura joateko biderik errazena zein zen. Izarrek esan zioten bazela Bihotzbaso izeneko leku bat eta hara heltzen lagundu ziotela.

Shin Mong liluratuta geratu zen, basoa oso ederra baitzen. Basoaren sarreran, ordea, zuhaitz batetik zintzilik, kartel bat topatu zuen: *Lau gaizkile gainditu eta pasabidea aurkitu*. Horixe egiten hasi zen.

Shin Mongek ez zuen beldurrik. Normala, bi urte eman baitzituen entrenatzen eta ying eta yang aurkitzen. Lehenengo gaizkilea suzkoa zen, baina Shin Mongek ez zuen arazorik izan hura menderatzeko. Gaizkilea izoztu eta ukabilkada batekin hil zuen.

Oraindik, bigarren, hirugarren eta laugarren gaizkileak menderatzea falta zitzaion; baina Shin Mongek ez zuen arazorik izan haiekin ere.

Shin Mong bigarren gaizkilearengana joan zen. Hostoz, belarrez eta zuhaixkez eginda zegoen. Shin Mongek ez zekien nola menderatu eta izarrei laguntza eskatu zien; baina haien boterea ez zen hain indartsua eta ezin izan zioten lagundu. Izarren erregin Estelari galdetzeko esan zioten. Hark ideia on bat xuxurlatu zion belarrira: Sua, sua. Hala, Shin Mongek su eman zion bigarren gaizkileari.

Hirugarren gaizkilea lur azpitik ibiltzen zen sator erraldoi bat zen eta, Shin Mong haren bila zebilela, izugarrizko kolpea eman zion lur azpitik. Shin Mong lurrera erori zen; baina, berehala, zaldien ihesaldi bat eragin zuen eta haien korrikaren burrunbarekin satorra mareatzea lortu zuten.

Azken gaizkilearengana hurbildu zen orduan Shin Mong. Begietara begiratu zion eta Shin Mong hipnotizatuta geratu zen. Izarrak hura esnatzen saiatu ziren ahalik eta azkarren, baina ez zuen erantzuten. Izar guztiak gaztearen aurrean jarri ziren eta ispilu erraldoi moduko bat eratu zuten. Shin Mongen begiek ispiluan errebote egin eta hipnotizatzailea lurrera botatzea lortu zuten.

Horrela lortu zuen Shin Mongek Bihotzbasa zeharkatu eta gaztelura iristea. Ezustean, gauditutako gaizkileen botereak zituela ohartu zen. Hala, gaztelua inguratzeko, sator bihurtu eta lur azpitik sartzea lortu zuen.

Gazteluan preso guztiak aurkitu zituen eta, ateratzear zirela, erregea azaldu zen. Ateratzeko, bere aurka borroka egin beharko zuela esan zion errege ankerrak Shin Mongi. Erregea ukabilkada bat ematen saiatu zen une hartan, baina Shin Mongek kolpeari ihes egin eta burla egin zion. Erregea sutan jarri zen eta bere guardia guztiari esan zion gaztea harrapatzeko. Shin Mongek dragoi itxura hartu zuen eta, orroa izugarri batekin, guardia guztiak eta erregea bera erre zituen.

Azkenean, etxerantz abiatu ziren eta izarrek bidea argitu zieten.

Herrian Shin Mong errege aukeratu zuten eta askoz hobeto bizi izan ziren, hura ez baitzen gaiztoa eta ankerra, bihotz onekoa baizik.

Amine Benabdallah

Ezberdinak

Zoragarria da egunero arraunlariak arraunean ikustea paladaz palada. Taldean kanpotik elkarri oihuka; baina barrutik, isiltasunean, kontzentratuta. Gure Mirotxa berriz ere ziztu bizian doa. Ni ez, ordea; baina hementxe nago, haiei begira eta gozatzan.

Orioko ibaia berezia da: atzo bare-bare eta gaur, berriz, korrante eta marea bizia. Ekaitza ari du, baina ez naiz damutzen honaino jaitsi izanaz. Ekaitza ari du eta tximistak argitsuak dira, arraunlariak bezala.

Amona Petra garrantzitsua da nire bizitzan. Eskerrak berari! Beragatik izango ez balitz, ez nintzateke orain hemen egongo. Amona Petra oso zorionsu bizi da eta eskuzabala da nirekin. Batera bizi gara, baina ez gara bikote. 76 urte ditu, baina fisikoki ondo mantentzen da; ile zuriak hasi zaizkio ateratzen eta, bere begiradak hotza ematen duen arren, oso pertsona beroa eta atsegina da amona Petra.

Horrelakoa da gure egunerokoa. Goizean bederatzietan esnatu eta amona Petrak gosaria prestatzen dit. Hori bai, irakurle, ez ezazu pentsa amona Petra nire amona denik; soilik, Orioko amona bat da; baina, niretzat, amona berezia. Gosaldu ondoren, xakean aritzen gara jo ta ke. Bazkaldu eta siesta egin ondoren, nire unerik gogokoena heltzen da: arraunlarien entrenamendua.

Goiko kaletik atera eta beheeraka goazela, Mari Maestrari agur esaten diogu, baina berak ez digu inoiz agurrik bueltatzen. Ondoko leihoan hor dago, berriz ere, Maria Antonia, arropak zintzilikatzen, betiko orduan. Bagoaz behera. Eskubitara belarriak erne ditugula, egunero entzuten dugu musika eskola kantuan. Iturbide kaletik behera pilotakada hots handiak sumatzen dira. Iritsi gara Orioko plazara, ibai ertzera. Itsasontzi eta arrantzale askok dute itsasoratzeke garaia orain. Badoaz zazpi ontziak zazpi itsas handietara arrainak etxeratzeke asmotan. Otsailean urtero herriak itxura oso polita du itsasontzien presentziarekin; baina gero, itsasoratzen direnean, hustu egiten da plazako bista.

—Amona Petra! Badatoz arraunlariak! Arraun!


—Bai, Joseba, txukun datoz

—Egunero bezala, amona.

Gaurkoan zerbait berezi eta desberdina gertatu zaigu. Xakean ari ginela, norbaitek etxeke atea jo du: tok, tok!

Amona Petra hurbildu da atea zabaltzera.

—Nor da? —galdetu du Petrak.



Brittney Coon

—Nire izena Abdul da.

Amona Petrak atea ireki dio eta Abdulek bere burua aurkeztu du.

—Senegaletik nator, 22 urte ditut eta zuen bizilagun berria naiz. Laguntzarik behar baduzue, prest nago edozertarako.

—Mila esker, Abdul. Gu Petra eta Joseba gara, gure etxeke atea ere zabalik duzu nahi duzunerako.

Abdul joan da eta bere bisitak pentsakor utzi nau. Iruditzen zait gazteegia dela hain bakarrik egoteko. Bere herritik urrun bizi da eta nik badakit ederki asko zer den bakardadea, zer den desberdina izatea.

—Amona, zergatik ez diogu Abduli esaten gurekin etortzeko arraunlariak ikustera? Horrela, herria ezagutzeko aukera izango du —esan diot amona Petrari.

—Idea bikaina, Joseba. Nahi badu, etorri dadila gurekin.

Egunak joan, egunak etorri, Abdulekin irtetea ere ohitura bilakatu da. Gure arteko harremanak estutzen doaz: xakeko partidak, arraunlariak egunero ikusteko paseoak... eta eguneroko elkarrizketak. Batzuetan tristeak eta gogorrak, inoiz alaiak eta politak. Abdulek jaioterriko pasarteak kontatzen dizkigu eta bere hitzetan herrimina da nagusi. Faltan bilatzen ditu Senegaleko paisaia gorrixka ederrak. Askotan gogora ekartzen digu baobab zuhaitzen edertasuna eta misterioa. Paisaiak, zoragarriak; baina bizimodua, latza eta gogorra. Gaur goizean bere sekretu gordeak askatzen ausartu da. Umea zela, bere gurasoek bakardadean utzi zuten eta esklabo bihurtu zen. Hortik aurrera ez da gehiago kontatzeko gai izan eta malko bat erori zaio. Auskalo nola iritsi zen hona. Helduko da hori kontatuko digun eguna.

Orain garrantzitsuena da hiru pertsona bakarti egunerokoa konpartitzen hasi garela. Amona zahartzen ari da, baina Abdul nire alboan dago eta horrek babesa ematen dit.

Horrela pasa genituen egunak, asteak eta hilabeteak. Goiko Kanean gora eta behera, berritasunik gabe eta patxadan. Amona hil zitzaigun arte. A, zer ezbehar eta tristura! Bere heriotza bat-batekoa izan zen: gauean, oheratzeko orduan, lo hartu eta, zoritxarrez, ez zen berriro esnatu. Abdulek asko lagundu zidan egoerari aurre egiten; izan ere, biok ohituta gaude ezbeharretara.

Orain Abdulekin nago eta, lehen amona Petrarekin bezala, Abdulekin ongi moldatzen naiz. Elkarrekin bizi gara, biok behar dugu elkarren babesa.

Abdulek lagunak egin ditu, euskaraz ikasi eta oriotar bat gehiago da. Berak lortu badu herrian integratzea eta bizitzari aurre egitea, nik zergatik ez?

Agian ez naiz besteak bezalakoa, baina zerbait erakutsi badit Abdulek, hauxe da: ezberdinen artean elkarbizitza posible dela!

Telefonoa hartu eta nire lagunei deitzea erabaki dut. Lehen ere eskaini zidaten laguntza eta ez nien onartu; burumakur nengoen. Amaitu da bakardadea. Bizitzaz gozatzen hasi behar dut berriro. Abdul bezala. Bizitzako minutu bakoitza gozatu behar du pertsonak, eta istripu batek ezin du hainbeste aldatu nire zorientasuna. Hemen nago ni, 26 urte eta gurpil-aulkian.

Amaiur Sukia

Nire atzoko gaua

Bart gauean nire ametsa segituan bukatu zen,
ez nuen amesteko ideiarik.

Asper-asper eginda nenbilen; izan ere,
iluntasuna besterik ez zen nire logelan.

Ilargiari begiratzen aritu nintzen,
argitasun leun eta garbia zuen.

Ilargi betea zen eta nire logelatik
handi-handia ikusten zen.

Bat-batean ideia bat izan nuen:
ilargira bidaiatzen banuen, ez nintzen
aspertuko.

Imajinatu nuen bezalaxe, pare bat minututan
ilargian nintzen.


Ilargian ez nintzen batere aspertu:
saltoka, korrika... aritu nintzen.

Oso ondo pasa nuen; baina, bat-batean,
soinu bat entzun nuen.

Soinu hori iratzargailua zen:
dena amets bat izan zen.

Hori jakinda, gaur gauerako gogoa dut,
ea nora joango naizen jakiteko gogoa dut-eta.

Nora Agirresarobe



Lucia Parada

Eguna


Ilargia ateratzen da gauean,
gauean eguzkia desagertzen da;
desagertzen denean, iluntasuna zabaltzen da.
Iluntasunaren artean badira urrutian usaintzen diren izarrak,
izarrek igortzen duten bero kiskalgarri horrekin eguna goxatzen digute,
izar horien artean badaude tarteka agertzen diren Lurraren inguruko planetak,
baina erdi-erdian badago iluntasuna hausten duen satelitea: Ilargia.

Ilargiak duen kurba leun eta perfektu horrek goxotasuna sortarazten dit,
goxotasuna adierazten didate ilargiak hartu ditzakeen forma ezberdinek.
Ilbetean ilargia txanpon bat bezain borobil eta betea egon ohi da.
Ilgoran, berriz, eskuinaldeko zati erdia egoten da betea.
Ilberrian ez da ilargirik ikusten, ez erdia eta ez betea.
Baina ilbeheran ezkerraldeko zati erdia egoten da betea.

Iluntasuna hausten ari da, ateratzen ari da eguzkia.
Eguzkia atera denean, txoriak kantatzen hasi dira.
Txorien kantu melodikoekin batera iritsi da goiza.
Goizean esnatzen hasi da jendea,
jendea lanera joateko prest dagoena.
Umeak eskolara eta helduak lanera.

Eguzkia berotzen hasi da,
eta beroarekin batera heldu da eguerdia.
Eguerdian jendea bazkaltzen hasi da.
Bazkaldu ondoren joan da berriz jendea lanera.
Arratsaldean gazteak joan dira entrenatzera.
Iluntasuna sartzen hasi da eta iristen ari da gaua.

Garazi Unanue



Nora Satrustegi

Eguneroko maitea

—Kaixo! —nik.

—Agur! —besteak.

Bai, horrelakoa da nire bizitza: kaixo eta agur. Nire inguruan denak ikusten ditut alai eta ni, berriz, hemen gauero-gauero zuri nire komeriak kontatzen. Ezin dut gehiago! Horrela ezin dut bizi! Urteak daramatzat pentsatzen; baina, baina... ezinezkoa da! Nola egiten dute besteek lagunak edukitzeko, komunikatzeko? Nik ezin dut! Gainera, ni beti egon naiz atzetik. Filmetan ateratzen diren horiei *bigarren mailako pertsonaiak* esaten zaie; bada, ez baduzu sinesten ere, ni horietako bat naiz. Bai, niri pixka bat kostatzen zait askatzea; baina oso majoa naiz bene-benetan. Nire gelako gehienak protagonistak dira eta bizi dituzten abentura guztietan, hor egoten naiz, bai; baina beti, beti, beti, atzetik. Ulertzen duzu, ezta? Inoiz ez dut abentura zirraragarririk izan: mundua ezagutu, lagunak egin... Ez da justua! Nik ere abentura bat nahi dut!

2019/03/02

Gaur hobeto joan dira gauzak: Lierrek *Kaixo* esan dit. Badakit neska-laguna duela, baina hain guapoa eta ederra da... Zorte handia dauka Uxuek. Lehengo urtean hasi ziren ateratzen eta memento hartatik ezin dira banatu. Julen eta Paula ere bikote ederra dira, edo hori esaten dute. Horiek denbora gehiago daramate elkarrekin, bi urte edo horrelako zerbait. Lehen, Julen Liarekin zegoen; baina, Italiara joan ginenean, duela bi urte, ohartu ginen Lia printzesa bat zela. Harrigarria, ezta? Nire parean eduki izan dut printzesa bat. Ezagutuko duzu beren historia, egunkari guztietan atera zen. Eta, okerreña da ni han nengoela eta susmatzen nuela zer edo zer zegoela; baina nola ni naizen, airea mugitzen utzi nuen eta, gero, nola ez, besteentzat izan zen nik aurkitutakoaren meritua. Aaaaa! Nazkatu egiten nau horretaz pentsatzeak.

2019/03/27

Nola ez! Hasi dira azterketak; astelehenean, ingelesa, *grammar*. Asteartean, mate eta gizarte. Asteazkenean, musika. Ostegunean, etika. Eta ostiralean, zulo-beltza, biologiaaaa! Ezin dut horrela bizi, esklabo bat naiz. Beti aljebra madarikatuarekin eta, nola ez, Susanarekin. Hiltzekotan nago.

2019/04/10

Laster maiatza izango da eta, jakingo duzun bezala, urteak betetzen ditut. Ama ni baino ilusio gehiagoz dago. Nik ez diot garrantzia handirik ematen urteak bete-tzeari. Azkenean, beste urte bat gehiago da, ezta? Baina, denok ez dugu berdin pentsatzen. Nire amarentzako hamaseiak izan ziren bere garairik hoberena, edo hori esaten du, eta nirea ere hala izatea nahi du. Berak ez du kontuan hartu nik ez dudala lagunik, ez naizela ateratzen eta, are gehiago, ez naizela sartu nire bizitza osoan diskoteka batean. Bai, niri ere lotsa ematen dit: egun batzuk barru 16 egingo ditut eta oraindik ez dut hanka bat ere jarri diskoteka batean.

2019/04/27

Pentsatzen egon naiz eta nire urtebetetzerako badakit zer eskatu: bidaia bat nahi dut. Bereziki, hemendik kanpo, gauza guztiez ahazteko eta, behingoz, abentura zirraragarriren bat edukitzeko. Prest nago nire bizitza behar den bezala hasteko!

Baina, lehenengo, amari esan behar diot. Egia esan, ilusioa eginda nengoen; baina gogoratu dudanean ama... Badakit berak ez didala utziko, ziur nago; baina, badaezpada ere, galdetu egingo diot. Bada, orain lan egiteko ordua da: nola esango diot amari? Kontu asko eduki behar dut; pasatzen banaiz, agur abentura eta agur oporrak.

2019/05/04

Atzotik ez dut burutik kendu bidaiarena. Praktikatzten egon naiz amari nola esan eta, azkenean, bi esaldirekin geratu naiz. Erabaki dut, egoeraren arabera, bata edo bestea esango diodala. Ideia aproposa da eta erantzun batzuk ere pentsatzen hasita nengoen; baina iruditu zait hobe izango dela inprobisatzea. Bueno, hauek dira nire ideiak: lehenengoa oso zentzugabea da; baina, egoera deseroso batean, egokiena: *Ama, beti berdin. Zer egoista zaren! Eta gu, zer? Nik ere nahiko nuke bidaiaren bat egin. Ez zara bakarra ametsekin!* Eta bigarrena, gau batean afaldu eta gero esatea pentsatuta neukan: *Ama, badakizu asko maite zaitudala eta, ez didazunez gauza asko eskatzen, bada, bidaia bat egin nahi nuke nire urtebetetzerako. Familia osoarentzat. Mesedez!* Erabakita dago: bihar aurkeztuko diot nire ideia amari.

2019/05/08

Oso oker atera dira gauzak. Afaldu ondoren, oraindik mahaiian geundenean, nire ahoa prest zegoenean hitz polit haiek esateko, derrepentean amak esan du:

—Nazkatuta nabil zure anaiarekin! Egun osoan arropa erostea besterik ez du buruan. Ez dugu diru askorik. Eskerrak zu zaitudan. Neska jatorra zara eta beti zaude besteei laguntzeko prest.

Bai horixe! Imajinatu ni nola geratu naizen. Ezin izan diot ezer esan. Nigan duen konfiantza guztia galduko du bestela. Blokeatuta geratu naiz. Pena eman dit. Puf... Eta, orain, zer?

2019/05/09

Bihar nire urteak dira. Oraindik ez dut ezer eskatu. Pentsatzen dut sorpresa izango dela. Amak soineko bat erosi dit biharko. Ez dut harroa izan nahi, baina inoiz ikusi dudan soinekorik politena da (Cristina Pedrocherenak kontatu gabe). Egia esan, ez nuen pentsatzen hain hunkiturik egongo nintzenik. Nire ama ezaguturik, biharko eguna ezin hobea izango da. Irrikaz nago. Gainera, ez dizuet komentatu; baina laster, jakingo duzun bezala, ikasturte bukaera izango da. Aurten gure gelari tokatu zaio aurkezpena. Eta ezetz asmatu zein bikote aterako den aurkeztera! Bada, nola ez? Lier eta Paula aterako dira. Ez dira benetako *bikotea*, baina duela bi urte, udaran, elkarrekin liatu ziren. Lotsa handia ematen dit berak gelako ordezkariak izatea. Denok eduki behar dugu irribarre ederra eta beti makillatuta joan. Bada ez... zergatik? Berek esaten dutelako? Zer dira? Thomas Taw (munduko estilistarik onenetako bat)? Denok ez gara perfektuak. Ala bai?

Bueno, gai hori alde batera utzita, ilusio handia dut. Egia esan, esperantza handia dut. Bihartik aurrera dena desberdina izango da. Bueno, hobe dut lotara joatea behingoz; bestela, bihar begi-zuloak izango ditut. O! Ez! Paularen antza hartzen hasia naiz!

2019/05/26

Atzoko eguna ezin hobea izan zen. Amak arrazoi zuen. Esnatutakoan, gosaltzera jaitsi nintzen. Bueno, egia esan, hori egitea pentsatuta neukan, goizero bezala. Baina, aurrena, soinekoa jantzi nuen: itxura bikaina egiten zidan. Ez duzu imajinatzen... arrosak botatzeko nengoen, fiu, fiu... Memento hartan Paula ulertu nuen. Ezin nuen utzi ezerk nire itxura izorratzen. Orduan, goiz-goizean komunera joan eta, amaren makillajearekin, nire aurpegi honi hobekuntzak egiten hasi nintzen. Ez naiz askotan makillatzen —egia esan, inoiz ez— eta ez nuen pentsatzen hain zaila izango zenik. Oinarria jarri, kendu, *highliter*-a... Goiz osoa pasa nuen komunean. Hurrengoan lehenago bukatzea espero dut. Eta, bai, beste *hurrengo* bat egongo da. A! Gainera, ahaztu egin zait komentatzea, baina atzo larunbata izan zen eta horregatik ausartu nintzen soinekoa janztera eta horregatik geratu nintzen komunean hain berandu arte. Bueno, kontua da sukaldera jaitsi nintzela eta Jon eta ama nire zain zeudela.

—16 urte edukiko dituzu, baina 80 urteko bat bezala mugitzen zara —esan zuen Jonek.

—Zure anaiak arrazoi du. Non egon zara? Gosaria hoztu egin zaizu —gehitu zuen amak.

Nire urtebetetze eguna, eta biak ezer gertatuko ez balitz bezala! Nire eguna zen eta bi horiek ahaztuta zeuden! Edo, behintzat, hori ematen zuen. Baina, beti bezala, ez nuen asmatu. Gosaria ez zen izan munduko gauzarik hoberena; baina gero zetorrena, bai. Erosketak egitera joango ginen!

Zer ilusio handia neukan! Berez, autoan sartu ginenean, Jonen *partidua* ikustera joatekotan ginen. Egia esan, oso sinesgarria zen, Jon kirol-jantziarekin eta guzti zegoen-eta. Baina, autotik jaitsi ginenean, Garberan geunden. Bai, pentsatuko duzu *neska hau, 16 urterekin, joango zen noizbait erosketak egitera*. Bada, egia esateko, normalean amonak erosten dit arropa. Bai, amonak. Patetikoa da, badakit. Eta imajinatuko duzu nire amonak non erosiko didan arropa. Bada, H&M edo BENNETON bezalako dendetan. Eta hori nire adinerako... Eta, klaro, ume itxurarekin ateratzen naiz kalera. Gainera, dena umeen ataletik hartzen du. Bazen garaia behingoz nire gelan entzundako denda horietara joateko! Bai!

Hasieran, PINKIE dendara joan ginen. Han pare bat kamiseta eta bakera *oversize* bat erosi nuen. Gero, STRADIVARIUSera. Eta han, galtza estu-estu batzuk erosi nituen, jertse txuri motz bat eta *sweter* pegatu bat. Bi sudadera PULL&BEARen, eta, nola ez, BERSHKAn beste galtza batzuk, *jacquard* estilokoak eta jaka arrosa. Gogo handia daukat arropa berria estreinatzeke, baina une perfektua bilatu nahi dut.

Eguna bukatzeko, TATAMira joan ginen afaltzera, jatetxe japoniarrera. Ederki pasatu nuen. Ez baduzue ezagutzen, gomendatzen dizuet. Jakina, sushia gustatu behar zaizue. Etxeratutakoan, 22:00ak aldera, amona eta aitona bertan zeuden eta sukaldeko mahaian lau opari zeuden.

Ez nuen batere espero; gehiegizkoa iruditu zitzaidan. Lehenengo bi paketetan Super Star-ak eta Convers-ak zeuden, beti nahi izan ditudan oinetakoak. Nire aurpegia ikusi behar zenuten. Nik ere ez nuen sinesten, Eta oraindik bi opari falta ziren! Hurrengoa ireki nuenean, buila egiten hasi nintzen. Nik uste dut Madrilen ere entzun zela. Egiatan, nire urtebetetzerik onena. Badakizu zer zegoen? Mugikor bat! Baina, gainera, iPhone 6S-a. Egiatan, mugikor bat eta, gainera, iPhonea! Nik uste dut —inor mindu nahi izan gabe— nahita egin zituztela nire beste urtebetetzeak ez hain onak. Eta aurtengoa... Badakit Paula bezalako jendearentzat ez dela ezer izango, baina jende *normalarentzat*... Azkeneko oparia falta zen. Pakete txiki bat zen eta nik uste nuen Jonen detaile txiki bat izango zela: eskumuturrekoa, belarritakoak... baina ez. Ireki nuenean, udaleku batzuetako eskuorria zegoen. Bai, gainera, ez udaleku lasai bat hemendik gertu. Ez, ez! Urpekaritza egiten den bat. Mediterraneo itsasoan. Ez dakit zenbat balioko zuen eta ez dut jakin nahi, baina, derrepentean, nire amets guztiak bete egin ziren! Oraindik ez naiz ondo jabetu guztiaz.

Bihar eskolara! Egun aproposa iruditzen zait nire bizitzako etapa berri bat hasteko. Prest nago nire abentura hasi dadin.

2019/05/28

Gauzak asko aldatu dira nire urtebetetze egunetik. Aurrena astelehenean gertatu zena kontatuko dizuet. Eskolara iritsitakoan, Kloe zoriondu ninduen lehenik. A! Barkatu! Oraindik ez dut berari buruz hitz egin: nire *lagun* bat da. Txikitatik egon gara elkarrekin, beste guztiek bakarrik uzten gintuztelako. Uxue ere lehenago gure *kuadrillan* zegoen; baina iazko abenturarekin *Popun* taldera pasa zen. Ez zitzaidan oso normala iruditu egin zuena. Gu beti egon gara berari laguntzen, eta gero berak *Bye, bye!* egin zigun. Bueno, kontua da nik uste nuela Kloe bakarrik gogoratuko zela nire urtebetetzeaz; baina korridoretik ibiltzen ari ginen bitartean eskolako mutil guztiak guri —niri!— begira zeuden eta, bat-batean, denek nire izenez deitzen eta zoriontzen. Noiztik dakite eskolako mutil guztiek nire izena, nire gelakoek ez dakite eta...

Horren ondoren, Paula eta bere kuadrilla niregana gerturatu eta kunplidoak egiten hasi zitzaizkidan. Bai... niri. Kloe eta biok harrিতuta geratu ginen: jo, puntu honetara iritsi beharra! Egunerokoan ezta hitzik ere eta, gero, makillaje pixka bat, arropa polita eta denak zure atzetik. Eta mutilak antzeko. Pegatua den zerbait jantzen baduzu (goran zein beheran), zure atzetik ibiliko dira.

Tira... ba, hau esanda, asteleheneko kontua, listo. Bueno, gauzatxo bat komentatzea ahaztu zait: berekin ateratzea eskatu zidaten eta nik baietz esan nuen. Baina uste dut arazo batean sartu naizela. Ez da amak ez didalako utziko edo ez dudalako arropa, ez, baizik-eta ez dakidalako zer jantzi!

Arratsaldeko seiak dira, oraindik ez naiz jantzi, ez nago margotuta eta, gainera, zortzietan geratu naiz. Bertan behera utzi beharko dut. Zer pena! Edo...

—Ama!

—Zer?

—Ahalko zenidan lagundu?

—Bai. Nola ez, ba!

Igotzen den bitartean aitortza bat egin behar dut. Bueno, ba, urtetako lio honekin, eta irteeran pentsatzen, ba... Hoberena azkar esatea izango da: mateko azterketa suspenditu dut.

Bueno, ama dator. Gero kontatuko dizut azkenean zer egin dudan.

Jo, ba, azkenean, dena ondo joan da. Nire amak *look* perfektua aukeratzen lagundu dit. Bai, nire amak! Ez baduzu sinesten ere, asko daki modaz. Berak

gaztetan erabili izan zuen top bat utzi dit, eta han joan naiz, STRADIVARIUSeko galtzak eta bakera *oversize*-arekin. Gero, amak margotzeko trukotxo pare bat erakutsi dizkit. Bere laguntzarekin denbora eman dit bukatzeko. Alesiak, beren kuadrillako batek, esan dit zirrargarri nengoela eta ni gorritu egin naiz.

Zenbait diskotekatan egon gara, denak Zarautzen. Ez dakit oso ondo dantzatzen; baina, salto pare bat egin ez, nahikoa zen. Gaueko memento batean Paula joan egin da. Besteek esan didate Julenekin geratuta zegoela, eta hitz egiteko geratuta zeudela. Esan didate, baita ere, zurrumurruek esaten dutela Julenek utzi egin nahi duela.

Mutil asko ezagutu ditut: Iker, Mikel, Urko eta Alain. Lehenengo hirurak, Zarauzkoak dira eta Alain, Donostiakoa. Badakit urrutitxo dagoela, baina nik uste, bere aurpegiatik, mereziko zuela bisitan joatea. Ulertzen didazu, ezta?

Liharren kuadrillakoak ikusi ditugu. Eta, Alaineekin hitz egiten nengoen bitartean, bera gerturatu zaigu.

—Ez nekien lagunak zinetenik —esan dut.

—Ezagutzen duzu? —galdetu zuen Alaine.

—Jakina! Gela berera goaz —erantzun nion.

Gero Liherrak keinu bat egin dio eta pixka bat urrundu dira. Ni, kotilla bat naizenez, dena entzun dut eta gorria jarri naiz.

—Ondo aukeratu duzu, e? —esan zuen Liherrak.

—Batera zaudete? —galdetu zuen Alaine.

—Ez, baina gustatzen zaizu, ezta? —susmabera, Liher.

—Bai, bai! Pixka bat —erantzun zuen Alaine.

Nire lehenengo gaua. Gauzak hasi berriak dira.

2019/05/31

Barkatu, gaur ezin dizut asko kontatu. Badakit denbora asko nindoala ezer esan gabe, baina amak udako etxeko lanak gaur bukatzera derrigortu nau. Atzo bueltatu nintzen udalekutik. *Experiencia inolvidable*, esaten den bezala. Egun asko izan dira eta ez dut denbora asko dena kontatzeko. Laburpen txiki bat egingo dizuet. Gehien gustatu zaidana Grezian, Santorinin, buzeatzea izan da. Errepikatzeko. Lagun handi bat egin dut. Gainera, Euskadikoa da, Oñatikoa. Karla izena du, eta berarekin dena hobeto joan da; biak ibili gara elkar laguntzen.

Azentua pegatu dit eta, etxera iritsi nintzenean, amak ez zidan ulertzen!

Gaurkoz nahiko, bestela amak errieta botako dit-eta.

2019/07/24

Kaixo! Ez dakit gogoratzen nauzun. 87 urteak eginda ditut. Denbora asko da ez dizudala hitz egiten. Bai, gauza asko gertatu zaizkit bizitzan; eta horietako asko ez dauzkat gogoan. Orri hauek irakurtzean, konturatu naiz, ez bazan izango ama edo Jonengatik, ez nintzela hemen egongo.

2019. urtea oso garrantziko urtea izan zen. Gogoratzen dut. A, zer garaia! Konturatuko zinen, udalekuak eta gero, ez nuela ezer gehiago idatzi. Bai, egia da, ez nuen balorerik izan nola sentitzen nintzen adierazteko. Esango duzu: *Zergatik?* Udalekutik etorri ondoren, ama gaixotu egin zen eta, hilabete batean gutxi-gora behera, bere hiletara joan behar izan genuen. Jonek 23 urte beteta zituen, baina nik 16 besterik ez. Memento horrek asko markatu dit bizitza, eta horregatik erabaki nuen medikuntza ikastea, nire ama bezalako jende gehiagori bizia salbatzeko. Eta hala izan da duela urte batzuk arte. Ama hil zenean, Eivissara joan ginen aitona-amonekin bizitzera.

2025ean Jon ezkondu egin zen, Aitorrekin. Ni oraindik karrera ikasten ari nintzen, Lur ezagutu nuenean. Bai, Lurrekin ezkondu nintzen eta bi neska zoragarri izan genituen. Mia eta Yone. Hori baino lehen, New York-en egon nintzen bizitzen bi urte.

Ondo gogoratzen dut: alabek 15 urte inguru zituztenean, Greziara joan ginen urpekaritza egitera. Bai ederki pasa nuen! Hori, gutxi gorabehera, 2038an izan zen. Duela hogeitau urte amona izan nintzen. Bost bilobatxo maite ditut; handienak 14 urte ditu eta txikienak, berriz, oraindik 3. Nire kuttunak dira, asko maite ditut.

Lanaren kontu hori... Nire karreraren zehar, goazen zifra bat botatzera, 500 pertsona inguru sendatu ditut minbiziaz. Badakit ez dela asko; baina bada zerbait. Duela 22 urte jubilatuta nintzenetik faltan bilatzen dut.

Itxaso Ayerbe Cisneros izena dut, ile horia eduki izan dut, begi ilunak, eta bizitzak eman dizkidan aukerak aprobetxatu ditut. Ez dakit benetakoa izango naizen, edo amets batean biziko naizen, baina nik nire ametsa bete dut. Bete ezazu zurea.

2090/03/20

Itxaso Ayerbe



Ane Amas

Ani eta lagunak

Beste gela batean esnatu nintzen, eta orduan gogoratu nintzen ama eta biok etxez aldatu ginela.

Etxe hori Transilvaniako herri txiki batean zegoen. Etxea nahiko txikia zen, baina oso eroso eta polita zen.

Esnatu orduko, ohetik altxatu eta sukaldera joan nintzen. Sukaldean ama gosaria prestatzen ari zen. Katiluan esne-txorrota bat bota eta armairutik gaileta-potoa atera zuen. Azkar batean gosalduek nuen eta jantzerara joan nintzen nire gelara. Urduri nengoen, eskolako lehenengo eguna zela-eta. Gero, motxila prestatu nuen eta kalera atera nintzen. Eskolara nindoala, beste haur batzuk ikusi nituen, eta berekin joan nintzen eskolara. Gela batera sartzeko esan zidaten eta horrela egin nuen. Gela hartako mahai batean eseri nintzen eta, geroago, nire ondoko mahaian, beste neska bat eseri zen.

—Kaixo! Ni Jane naiz —esan zidan irribarre handi batekin.

—Kaixo! Nik Ani izena dut —erantzun nion.

Segituan sartu zen andereñoa klasera, eta ez genuen izan aukerarik gehiago hitz egiteko. Jolasgaraian Jane hurbildu egin zitzaidan.

—Kaixo, Ani! Berria zara, ezta? —galdetu zidan.

—Bai, berria naiz —erantzun nion.

—Nik uste dut lagun handiak izango garela, Ani. Zer diozu zuk?

—Bai, lagunak izango gara! —esan nion, pozik.

Hizketan eta barrez pasatu genuen jolasordu guztia. Hurrengo klaseetan ere txutxu-mutxuka ibili ginen. Izugarria izan zen! Jane, ni, Biki eta Sasha (beste bi neska) oso lagun onak egin ginen denbora gutxian. Jane eta Biki Transilvaniakoak ziren; Sasha eta ni, berriz, kanpokoak ginen.

Asteazkena zen eta, egunero bezala, denok bizikletaz joan ginen eskolara. Jolasorduan, Janek proposatu zigun ea nahi genuen asteburuan txango bat egitera joan basora, ostirala jai zela aprobetxatuz.

Denok baietz esan genuen.

Ostirala zen. Azkar batean altxatu nintzen, jantzi, eta sukaldera joan nintzen, korrika eta saltoka.



Saioa Basurko

Ama han zegoen; gosaria jada prestatuta zeukan eta gosaltzen ari zen. Gosaldu, bezperan prestatu nuen motxila bizkarrean hartu eta kalera atera nintzen. Ama agurtzera atera zen.

—Agur, Ani! Ondo pasa eta zaindu! —esan zidan, eskuarekin agurtzen zidan bitartean.

—Bai, agur! —nik ere agur egin nion eskuarekin.

Plazan 10:30ean geratu ginen. Nire etxetik plazara bost minutu ziren bizikletaz eta han nintzen 10:29an. Denak iritsi zirenean, Janeren atzetik joan ginen, berak zekien-eta bidea.

—Basora iristean, asko ibili beharko dugu eta, azkenean, borda bat dago. Hantxe egingo dugu lo —esan zuen Janek.

Basora iritsi ginen eta han, bizikletak eskuan hartu, eta oinez hasi ginen basoan barrena. Orduak pasa genituen oinez, hitz egiten, eta, halako batean, bazkaltzea erabaki genuen. Bazkalondoren, ordu gehiago egin genituen oinez. Iluntzen hasi zen zerua eta oraindik ez ginen iritsi borda hartara. Kezkatzen hasi ginen eta nekatuta ere bageunden.

—Asko falta al da bordara iristeko? —galdetu zion Sashak Janeri.

—Ez, ez asko! Goazen! —erantzun zion, animatuta.

Azkenean iritsi ginen bordara. Borda ez zegoen gaizki, bertan egoteko eta lo egiteko. Lotarako zakuan sartzean, leihotik zerbait ikusi nuen eta lagunei esan nien; baina ez zidaten kasurik egin. Nik ere nire irudipena zela pentsatu nuen eta lo egin nuen.

Berandu esnatu ginen denak. Gosaldu eta jolasten hasi ginen basoan, harra-paketetan. Korrika atera nintzen eta berriro zerbait ikusi nuela iruditu zitzaidan. Ikusi orduko, beldurtuta, beste aldera hasi nintzen korrika eta lagunekin geratu nintzen.

Gaucan, bordaren kanpoaldean kartetan ari ginela, Sashak zerbait ikusi zuela esan zuen.


—Zerbait dago hor! —esan zuen baxu eta beldurtuta.

—Bai, nik ere atzo zerbait ikusi nuen —erantzun nion, nik ere baxu-baxu.

—Ba, nik uste dut ez dela ezer, haize fin bat bakarrik —bota zuen Janek.

—A, bai! Zerbait dago. Oso azkar mugitzen den zerbait —Biki larritzen hasi zen.

—Goazen barrura —esan zuen Sashak.



June Dorronsoro

Denok barrura sartzen hasi ginen, baina atea itxi egin zen eta ezin genuen ireki. Beldurtuta geunden bata bestearen ondoan, isil-isilik, eta, bat-batean, pauso batzuen soinua entzun zen. Beldur izugarria genuen guztiok; baina, azkenean, soinua gelditu edo bukatu egin ziren. Jane ausart altxa eta basoan barrena murgildu zen. Denok haren atzetik hasi ginen, bakarrik ez geratzeko; baina, iluntasunagatik, banatu egin ginen. Korrika nindoan basoan, zerbait entzun nuenean nire atzetik. Gero eta azkarrago hasi nintzen korrika, erori nintzen arte. Beldurtuta, begiak ireki nituen; baina ez zegoen ezer Altxatu eta ezer ere ez. Urrutian ahots bat entzun nuen. Bat ez, hiru ahots ziren. Ahots horiek Jane, Biki eta Sasharenak ziren.

Korrika nindoan, ahal nuen azkarren, eta, oso hurbil entzun nituenean, han ikusten dut banpiro bat beren odola zurruputzen, eta orduantxe esnatu nintzen.

Euskal Herriko nire etxeko ohean!


—Nahiko nituzke ezagutu Jane, Biki eta Sasha!

Kattalin Zinkunegi

Malkoak

Malko guztiak ez dira berdinak.
Batzuk berehala lurruntzen dira;
badira ur geldiez osatutakoak,
edo euri-jasen itxurakoak,
malko izoztuak,
malko irristakorrak,
altzairuzko malkoak,
mamizko malko eztiak,
malko gordinak bere horretan.

Ines Duran



Jokin Iruretagoiena

Harri-jasotzaileak

Izena asmatzeko
lehenengoarena,
jo beharko dugu
harriaren aitarena.
Nafar eta leitzar den
adituarena.
Horra doa izena:
Iñaki Perurena.

Bigarrenkoa ere
ezta, ba, erraza.
Bisitatu ditu honek
zenbait plaza.
Hamabi garaipen
lortzeko kapaza,
hauxe dut nik aitona:
Agustin Ostolaza.

Hurrengoa ez ezazue
hartu ahulegi.
Hiru bi bederatzi (329)
kilo arinegi.
Sinesten ez duenak
hau dela egi.
Galdetu gizon honi:
Migel Saralegi.

Aurkeztuko dizuet
neska harrigarria,
bizkarrean hartu zuen
hamar arroako harria.
Erreferente bezala
da miresgarria,
emakume gogorra:
Idoia Etxeberria.

Neskatxa honek (eg)in ditu
makiña bat plaza.
Begira jarri eta
ematen du erraza.
Hamahiru urterekin
indarra du latza.
Pertsona hau ni neu naiz:
Udane Ostolaza.

Udane Ostolaza

Oporrak eta itxaropena


Orain dela urte batzuk niri gertatutako istorio bat kontatuko dizuet. 8 urte nituela, nire familiarekin —5 urteko ahizpa, ama eta aitarekin— Singapurren bizi nintzen. Nire aita Singapurrera mugitu zen lanagatik, eta gu berarekin, abentura polit bat bizitzera.

Oso bizitza ederra genuen, ikastolan ekintza pila bat egiten genituen eta, gero, bizi ginen urbanizazioan bizitza asko zegoen, ia gehienak atzerriko herritatik etorritakoak baikin. Ikastolak igerileku propioa zeukan, eta askotan joaten ginen. Musika eta matematika aktibitate pila bat zeuden, baina dena jolas moduan erakusten ziguten. Oso dibertigarria zen eta, gainera, astean hiru aldiz igerilekura joaten ginen. Baina onena gure urbanizazioko lagun taldea eta elkarbizitza ziren. Urbanizazioko familia askotako umeekin oso lagunak ginen eta afari eta bazkari asko egiten genituen elkarrekin. Hilean behin urbanizazioan oso festa polita egiten genuen; han bizi ginen familien artean herrialde bakoitzeko platerak eta kultura ikasteko prestatzen ziren. Nire familian Euskal Herriko platerak prestatzen genituen, beste batzuk Australiakoak, Alemaniakoak, Indiakoak... Hilean behin familiarekin inguruetakoa herrialdeak ezagutzera joaten ginen. Niri gehien gustatzen zitzaizkidan mementoak ziren, oso gauza politak ikusten genituelako.

Hiru hilabetero ikastolan astebeteko oporrak izaten genituen eta aitak ere oporrak hartzen zituen, gurekin egoteko edo bidaia berri bat egiteko. Asko pentsatu ondoren, Indonesiara joatea erabaki genuen, oso gertu zegoelako eta erlaxatzeko oso leku aproposa iruditu zitzaigulako. Iritsi ginenean, txundituta geratu nintzen: ingurumena oso polita zen, hotel zoragarria, hondartza zuri eta bukazezinak... Baita tenperatura ere, zoragarria Singapurrekoaren berdintsua zen, baina hezetasun gutxiagorekin eta bero sentazio gutxiagorekin.

Lehenengo egin genuen gauza hondartzara joatea izan zen. Hondartzan aitarekin jolasean ibili ginen, bainatzen, eta baita hastapeneko surf ikastaroak hartzen ere. Azken hori zen gogokoena genuena: familiako laurok saiatu eta saiatu, eta barrez aita nola erortzen zen ikusiz. Guk lortu genuen tente jarri eta aurrera egitea, baina aitak, nahi eta ezin.

Laugarren egunean, hondartzan jolasean geunden bitartean, hasi zen gauza okertzen. Bat-batean hotelekoek garrasiz abisatu ziguten itsasikara nahiko indartsu bat egon zela nonbaiten eta balitekeela tsunami bat etortzea. Dena eromena bihurtu zen: jendea alde batera eta bestera korrika, nire ahizpa eta ni negarrez eta erabat beldurtuta, ama eta aita zer egin hitz egiten, gu biotatik tiraka zihoazela hotelera. Hotelean aitak alokatuta genuen kotxera bideratu gintuen zuzenean eta urrutiratzen hasi ginen. Hiria zeharkatu eta mendietara bidean, aitak eta amak abisatu



Haizea Arrizabalaga

egiten zituzten bide ondoko herritarrak, autoko bozina jo eta jo; baina orain lotsaz esan dezaket ez genuela ezer egin jendeari laguntzeko; ez ginen geratu, gu aurrera eta aurrera.

Herritik gertu mendi bat zegoen eta, aldapa hastera gindoazela, geratu egin behar izan genuen auto ilaragatik. Aita oso urduri jarri zen eta denak autotik atera, eta mendian gora korrika eraman gintuen. Ni beldurrez akabatuta nengoen, zer gertatuko zen jakin gabe. Erdi aldean geundela, atzera begiratu nuen eta ur masa handia ikusi nuen herrira sartzen. Dena aurretik eramaten zuen: etxeak, kotxeak, zuhaitzak... Aitak bultza egin ninduen, esanez *Ez begiratu, segi korrika!* Ni negar batean jarri nintzen; gainera, hori dena berrogei bat minutu inguruan izan zen, eta ez nintzen gauza erabat ulertzeko zer gertatzen ari zen eta, batez ere, ulertzeko zer zetorren ondoren. Uste nuen urak gu ere irentsiko gintuela, ezin nuen burutik kendu. Arnasa falta zitzaidan, denboraren arrastoa ere galdu nuen eta aitaren presioa eta indarra bakarrik sentitzen nuen, gora eta gora. Ez nekien amak eta nire ahizpak gure aldamenean jarraitzen zuten ala ez, jende asko ginen edo ez, ura heltzen ari zen edo ez...

Bat-batean aita geratu egin zen eta besarkada handi bat eman zidan. Muxu bat eman eta aurpegira begiratu, denak salbatu ginela ezan zidan, eta ama eta ahizpa ere alboan nituen. Lasaitu nahi nuen, baina ezin nuen. Ahizpak negarrez jarraitzen zuen eta amak ere bai. Ingurura begiratu nuen eta mendi tontor batean geunden. Pertsona dezente ginen eta denok beldur aurpegia genuen. Atzera begira zeuden eta nik ere begiratu nuen: urak herria nola janda zuen ikusi nuen, ur zikina, objektuz beteta, autoak, zuhaitzak, arrantzarako ikusi genituen txalupatxoak, animaliak...

Arratsaldera arte geratu ginen han mendian, lur jota, beste jende askorekin batera. Ura nola atzeratzen ari zen ikusten. Aita beste gizon batzuekin hizketan ari zen eta beren artean herrira jaistea erabaki zuten jendeari laguntzera. Gu mendian geratu ginen. Pare bat ordu eta gero, aita eta besteak mendira bueltatu ziren. Aitari entzun nion amari kontatzen nola geratu zen dena; batez ere, jende asko zegoela hilda edo zaurituta eta laguntza handia behar zela. Ezin zuela han ezer egin gabe geratu eta behera zihoala berriro laguntzera. Ama eta gu salbu geundela han beste familiekin, laguntza etorri bitartean. Eta han joan zen berriro behera. Gu, bitartean, amek bultzatuta, pentsatzen dut lasaitzeko eta genuen trauma hobeto eramateko, jolasean ibili ginen beste umeekin, hango jolas oso bereziak erakutsi zizkiguten eta baita beren kulturako gauzak ere. Egia esan, gauza sinpleak ziren, baina asko lagundu zigun memento latz hartan aurrera ateratzen eta, batez ere, orain bizitza normal bat eramaten, traumarik eta beldurrik gabe berriro hondartzara joateko eta itsasbazterreko herri batean bizitzeko.

Gaua iritsi zen eta aita ez zen agertu. Ez genekien non zebilen eta zer egin. Nik amari galdetu nion, *Non dago aita?* Berak erantzuten zidan bakarra zen: *Ez dakit, maitea*. Nola edo hala, jendeak sua egin zuen eta han pasatu genuen gaua su ingu-

ruan. Hurrengo goizean amak aitaren bila joatea erabaki zuen eta gu, berriz, beste familiekin geratzea. Ama herrira jaitsi zen eta herri guztian begiratu eta galdetu zuen, baina aita ez zuen aurkitu. Hain atsekabaturik zegoenez, hildakoen zerrendan ere bilatzen ibili zen, arrastorik aurkitu gabe. Zeharo lur jota, guregana bueltatu zen eta, kanpotik etorri zen laguntzarekin batera, denak herrira jaitsi ginen kanpamentu batera. Ama oso-oso triste ikusten nuen, baina ez zuen negarrik egiten. Uste dut gu ez atsekabetzeko, baina pentsatzen dut aita hilda zela uste zuela.

Bitartean, aita ospitalean zegoen, hanka puskaturik. Zuhaitz bat hanka gainera erori zitzaion eta zorte handia izan zuen bakarrik ez egoteaz, laguntza talde batek ikusi eta ospitalera eraman zuen-eta. Bera saiatzen zen telefono bat aurkitzen, bazekielako gure amak bazuela berea eta deitu nahian; baina hainbestekoa zen kaosa, ez zuela lortu. Hirugarren eguneko gauean laguntza taldeko pertsona bat telefono mugikorrarekin ikusi zuen eta hark telefonoa uztea lortu zuen eta amarekin harremanetan jartzea lortu zuen.

Hurrengo goizean ama, gu berriro beste familiekin utzita, aitaren bila joan zen ospitalera. Nik ezin nuen aguantatu ama eta aitarik gabe, eta nire bizitzako ideiarik okerrena bururatu zitzaidan. Nire ahizparekin herrian barrena ateratzea amaren atzetik. Herrian galdu ginen eta ez genekien zer egin. Orduan, izkina batean oso beldurturik eta negarrez eserita geratu ginen. Andre bat inguratu zitzaigun galdezka: *Non daude zuen gurasoak?*, baina guk ez genion ezer ulertzen. Laguntza taldekoei deitu eta kamioi batean sartu gintuzten beste ume askorekin batera. Ospitale batera iritsi ginen eta han zegoen beste kanpamentu batean sartu gintuzten. Han, izen-abizenak galdetu zizkiguten, ingelesez, eta pegatina bat itsatsi ziguten gure datuekin.


Bitartean ama lehenengo kanpamentura buelta zen, lasai eta zoriontsu, aita aurkitu zuelako eta ez zeukalako ezer larririk. Bertara iristean eta gu ez aurkitzean, berriz estutu eta korrika batean atera zen herrira gure bila. Alde batera eta bestera ibili zen, kaleko jendeari deskribatuz gu nolakoak ginen. Halako batean pertsona batek esan zion gure antzeko bi ume zuri laguntza taldekoek eraman zituztela kamioian beste galdutako umeekin. Kamioi hori ospitalera zihoala eta hango kanpamentuan begiratzeko. Ama, korrika, pasatzen ari zen beste kamioi batera igo eta gure bila jarraitu zuen.

Gu, berriz, oso-oso triste ginen, bakarrik. Ez nekien nola kontsolatu nire ahizpa. Ama ospitalera iritsi zen eta hango arduradunei galdetu zion gure berri ba al zuten. Arduradunak umeen izenen listan begiratu eta bere atzetik joateko eskatu zion, gureganaino. Nire bihotza erabat poztu zen. Nire bizitzako mementorik onena izan zen, bakea eta esperantza dena batean. Amarentzat uste dut ere horrela izan zela. Amak besarkatu gintuen eta negar batean hasi zen pozagatik.

Aita bisitatzera eraman gintuen, ospitale berean baitzen, baina beste atal batean.

Aita asko poztu zen eta esan zigun hegazkin bat hartuko genuela hurrengo egunean. Europar Batasunak bere hiritarrentzat bidalitako hegazkin bat. Hurrengo goiza iritsi zen, autobus zahar batean igo, ia bata bestearen gainean, baina berdin zen, handik ateratzeak balio zuen eta aireportura eraman gintuen. Iritsitakoan, hegazkinean sartu gintuzten. Gu eta beste denak oso pozik jarri ginen etxera gindoazelako eta denak ongi geundelako. Singapurrera iritsitakoan, urbanizazioko guztiek agurtu eta besarkatu gintuzten, eta festa lasai eta polit bat prestatu ziguten. Ni ez nintzen aita eta amaren albotik mugitu hurrengo bi asteetan. Oraindik egin nuen hanka-sartzearen pisu handia nuen nire gainean. Aita eta ama gehiago ez ikusteko arrisku horrek traumatizatuta ninduen; baina aita, ama, ikastola eta lagun guztien artean bizitza normalizatzen asko lagundu zidaten.

Irene Alberdi



Markel Azkue

Ahaltsuak

1. atala

Bi anai-arreba biki jaio ziren behin, biak bereziak. Zergatik? Irakurri beren historia.

Otto eta Miriam 13 urteko anai-arrebak ziren. Lasai bizi ziren beren herrian, baina ez ziren normalak; izan ere, ahalmenak zituzten. Ez zekiten zergatik edo nola, baina ahalmenak zituzten. Otto gorputza metalezko bihurtzeko eta itxura moldatzeko gaitasunarekin jaio zen. Miriam, aldiz, gai zen edozein ilusio edo haluzinazio sortzeko eta bere ahotsarekin jendea hipnotizatu zezakeen. 6 urte zituztela ohartu ziren beren ahalmenez, baina normal jarraitu zuten beren bizitzarekin, ezer gertatu ez balitz bezala. Berek bakarrik zekiten, ez beste inork. Bueno... hori uste zuten.

Biak etxean zeuden, bakarrik, beren gurasoak kanpoan baitzeuden. Otto egongelan zegoen telebista ikusten eta Miriam logelan pijama janzen.

DIN-DON! jo zuen tinbreak.

Ottok atea ireki eta gizon bat eta bi emakume ezezagun ikusi zituen.

—Zu Otto zara, ezta? —galdetu zuen gizonak.

—Eta zu, nor zara? —galdetu zion Ottok, ikaratuta.

—Ni Helge naiz. Nirekin datozenak Annunziata eta Encina dira.

Gizona gaztea zen. 16 bat urte edukiko zituen; alboko emakumeak, 18; eta berekin zihoan neskak, 12 bat.

—Zer nahi duzue? —galdetu zien Ottok, apur bat ikaratuta.

—Zure arrebak eta zuk gurekin etorri behar duzue —agindu zuen Annunziatak—. Gero azalduko dizuegu dena.

Ottok ahal zuen bezain azkar itxi zuen atea. Arnasa hartu zuen, urduri. Poliziari deitzera zihoan, baina bere aurrean zegoen lurra altxatu egin zen pareta osatuz eta Ottori bidea eragotziz. Atea ireki zen.

—Zer nahi duzue? —galdetu zuen Ottok, beldurtuta eta gertatutakoarekin harrituta.

—Zu eta zure arreba gurekin etortzea —esan zion Helgek.

Hori esan eta gizonak besoak luzatu zituen, eta Otto bildu zuen beso artean.



Blas Esnal

—Aska nazazu! —oihukatu zion Ottok.

—Gurekin baldin bazatoz bakarrik.

—Ezta pentsatu ere!

Otoren gorputzetik burdinazko arantza batzuk ateratzen hasi ziren eta Helgek besoak erretiratu zituen.

—Ni besorik gabe gelditzea nahi, ala?

Orduantxe Miriam logelatik atera zen.

—Zer gertatzen da?

—Zure anaiak eta zuk gurekin etorri behar duzue. Benetan egoera larrian gaude ahaltu guztiok.

—Alde hemendik orain! —hasi zitzaien oihuka Otto—. Bizirik ateratzeko asmoa baduzue behintzat.

—Ez gu mehatxatu! —esan zion Annuziatak, haserre.

Hori esandakoan, emakumea makurtu egin zen eta eskuak lurrean jarri zituen. Otoren azpian zegoen lurra harea mugikor bilakatu zen eta lepora arte lurperatuta geratu zen.

—Zer? Nola? —esan zuen Ottok, harrিতuta.

—Askatu nire anaia... —hasi zitzaion esaten Miriam ahots hipnotikoarekin—. Askatu orain.


Annuziatak begiak oso zabalik zituen, baina bazirudien ez zegoela bizitzarik haietan. Berriz eskuak lurrean jarri eta, pixkanaka-pixkanaka, Otto lur azpitik ateratzen hasi zen.

—Hori da. Segi horrela Otto atera art...

Lurretik atera ziren huntza batzuek Miriamen gorputza estutu zuten eta ez zioten hitz egiten jarraitzen utzi. Orduan, berriz ere, Annuziataren aurpegira bizia bueltatu zen eta Otto berriz lurperatu zuen.

—Eskerrik asko —esan zuen Annuziatak—. Tira... lokartu itzazu, Encina.

Biek mugitu ezin zutela aprobe txatuz, Annuziata eta Helgerekin zihoan neska-toa, Encina, haiengana hurbildu zen. Bi anai-arreben aurrean zegoenean, eskua zabaldu zuen eta, ondoren, esku ahurrean lore-begia sortu zitzaion; lore-begia ireki eta lore bihurtu zen. Putz egin zuen eta loreak polena askatu zuen. Ottok eta Miriamek lore-hautsa arnastu eta lo hartu zuten.



June Iradi

2. atala

Miriamek begiak ireki zituen. *Zer amets arraroa!* Gelari erreparatu zion eta ez zela amets bat ohartu zen.

—Esna zaude azkenean —entzun zion Miriamek mutil bati.

Ondora begiratu eta beste mutil bat ikusi zuen.

—Zein zara? —galdetu zion Miriamek mutikoari oldarkor, ikara ezkutatu nahian.

—Ni Vladimir naiz. Badakit orain nahasita zaudela, baina bost minutu barru egongelara jaitsiko gara eta Bernhardek dena azalduko dizue, zuri eta zure nebari.

Bost minutu horiek ezin mantsoago igaro ziren Miriamentzat. Vladimirk eskua luzatu zion.

—Tira, jaitsi gaitezen egongelara.

Neskak eskua baztertu zuen eta lehengo oldarkortasun berarekin esan zion:

—Badakit nik bakarrik ibiltzen. Zuk eraman nazazu egongelara, Bernhard delako horrek dena argitzeko!

—Lasai, ez dizuegu ezer egingo.

Eskaileretatik jaitsi ziren, korridorea zeharkatu eta atea indarrez jo zuen Vladimirrek. Atea ireki eta han ikusi zituen agure zahar bat besaulki batean eserita eta, haren ondoan, Otto eta mutil gazte bat, sofa batean eserita.

—Vladimir, Miriam... eseri Otto eta Mikerekin batera. Ni Bernhard naiz —esan zien agure zaharrak ahots gozoz—. Barkatu hona horrela ekartzeagatik, baina zuen hobe beharrez egin dut. Konturatuko zineten ez zaretela besteak bezalakoak, ezta?

—Bai! —esan zuten bi neba-arrebek ahots batez.

—Zuen garuna berezia delako gertatzen da hori. Etxe honetan gauden guztiok, zuek barne, ia beste inor erabiltzeko gai ez den garunaren zati bat zukutzeko gai gara, *Psicopossum* deritzon zati bat. Horri esker, *psicopossuma* erabiltzen duen beste edozeinekin komunikatu gaitezke; berdin du zein hizkuntzatan hitz egin, gure artean beti elkar ulertuko dugu-eta. Baina bakoitzaren *psicopossuma* ezberdina da eta, horrek garunaren atal hori erabiltzeko gai den bakoitzari ipuinetakoa dirudien botere miregarri bat erabiltzeko ahalmena ematen dio.

Atea jo zuten, eta beren bila joan zen neskatoa sartu zen, teontzi bat eta kikara batzuk eskuan zituela. Tresnak mahai gainean utzi eta bera ere sofan eseri zen.

—Eskerrik asko, Encina —esan zion—. Nahi al duzue te pixka bat?

—Ez, eskerrik asko —esan zuen Miriamek, eta Ottok ere buruarekin ezezkoa egin zuen.

Bernhardek bere kikara bete eta tragotxo bat hartu zuen.

—Orain arte, ahaltsuok bizitza arrunta eramateko gai izan gara beste gizakiekin batera. Baina, duela hirurogei urte, ahaltsuen gobernu zentralako kide batzuek ahaltsuek beste gizakien gainetik agindu behar genuela uste zuten, ez genuela ezkutaturik bizi behar. Hori dela-eta, matxinatu egin ziren. Baina, gutxi zirenez, ezin izan zuten irabazi. Hala ere, batzuk bizirik geratu ziren eta azken urteotan jarraitzaile asko lortu dituzte. Orain, ahaltsu gehiagoren bila dabilta. errekrutatze edo hiltzeko, gobernu zentrala kontrolatzeko. Repareta izeneko organizazioa sortu zuten eta orain ahaltsuok kontuz ibili behar dugu.

—Eta gure familia eta lagunak, zer? —oihukatu zuen Ottok, larrituta.

—Esan bezala *psicopossuma* oso erabilgarria da. Zuek nahi gabe ere, berengandik urrundu zaituztegunez, haien oroimenetik ezabatu zarete. Gainera, egoera hau gainditutakoan, berekin bueltatuko zarete eta zuetaz oroituko dira.

—Bueno, hemen seguruago baldin bagaude, hemen geratuko gara, ezta, Otto? —galdetu zion Miriamek anaiari.

—Bai! —erantzun zuen, lehor, ohi bezala.

—Ongi! Denok geure burua aurkeztuko dugu orduan.

Otto, Miriam eta Bernhardez gain, beste zortzi pertsona bildu ziren egongelan.

—Ni Helge naiz, ezagutzen nauzue, eta nire gorputza hiperelastikoa da.

—Ni ere ezagutzen nauzue: Annunziata dut izena eta nire ahalmena geokinesia da; alegia, lurra kontrolatu eta eraldatzeko gai naiz.

—Encina dut izena, fitokinesia da nik dudana ahalmena. Landareak kontrolatu eta hazarazi ditzaket.

—Vladimir naiz, eta nire ahalmen liluragarria pirokinesia da: sua sortu eta kontrolatzeko gai naiz —esan zuen harroputz.

—Nik Nyree dut izena eta nire gorputza eraldatu dezaket, bele bihurtuz, edo gizaki eta belearen arteko hibrido bat bihurtu naiteke.

—Kiara naiz eta nire eta besteen gorputzak sendatu ditzaket eta barne-organoak geldiarazi.

—Akihiro dut izena, nire *psicopossumak* ematen didan ahalmena beste objektu edo gorputzekin lekualdatzea da.

Akihirok, bere ahalmenak egiten zuena ulertu ez zutela ohartuz, erakustaldi bat egin zien: mutila zegoen tokian bere atzeako aulkia agertu zen, eta aulkia zegoen tokian Akihiro agertu zen,

—Ongi da, Akihiro! Utzi Luisi bere burua aurkezten —esan zion Bernhardek mutiko asiarrari.

—Ni Luis naiz, eta hesi edo ezkutu ia hautsezinak sortzeko gai naiz eta, nire hesiak ukitzean, jendeak deskarga elektrikoak jasaten ditu.

—Aurkezpenak eginik, afaltzera! —esan zien agureak bere ardurapean zeuden hamar gazteei.

3. atala

Otto eta Miriam beren bizitza berrira ohitu ziren hilabete pasatu ondoren. Basoaren erdian zeuden, ezkutuan eta galduta, baina, bi anai-arrebek asko atsegin zuten leku hura, oso baketsua baitzen.

Nyree, goizero bezala, basoaren inguruan hegan zebilen bele bihurtuta. Bere ohiko hegaldia amaitzear zuenean, gizon bat ikusi zuen etxera hurbiltzen eta ahal bezain azkar bueltatu zen.

Ailegatzean, berriro ere gizaki bihurtu zen eta Bernhard ikusitakoaz ohartarazi zuen.

Denak etxe barruan zeuden eta segituan sartu zen Bernhard Nyreek lehen ikusi zuen gizon ezezagunarekin.

—Umeok! Nirekin datorren gizonak Oliver du izena eta gobernu zentraleko kontseiluko bederatzi gerlarietako bat da —esan zien Bernhardek haurrak lasaitzeko asmoz.

—Eskerrik asko, Bernhard. Umeak! Jakingo duzuenek, lehengo astean Bernhardek bi gizon hil behar izan zituen. Reparetakoek zuen etxea aurkitu eta gau hartan zuek hiltzera etorri ziren. Bernhard, badakit beti leiala izan zarela eta, benetan, ezinbestekoa izan zinela ahaltsuen lehen gerran. Baina badirudi bigarren gerra bat edukiko dugula laster eta zu oso zaharra zaude ume hauek zaintzeko. Hori dela-eta, guztiok nirekin etorriko zarete nire basera, nik babestu ahal izateko. Zuri dagokizunez, zu bezalakoekin joango zara Reparetako armadaren aurka borrokatzera, haien boterea murrizteko helburuarekin. Ziurrena da zuek hiltzea; baina ia ordua iritsi zaizue eta, gainera, hurrengo belaunaldia babestuko duzue. Pozik egon beharko zenukete aukera hau ematen dizuegulako. Heroiak bezala hilko zarete! —esan zuen gizon arraro hark.

—Zer? —haur guztiek batera.

—Ezingo gaituzu inora eraman aurpegia kiskalitakoan! —mehatxatu zuen Vladimirrek.

Gaztearen eskuetan su-bola bat pizten hasi zen.

—Ezta saiatu ere, mutiko! —erantzun zion sendo Vladimirri.

Bat-batean Vladimirren su-bola itzali egin zen.

—Zer arraio gertatu da?

Oliverren ahotik gas urdin bat atera zen, nerabea lokartuz.

—Norbait gehiago saiatuko al da ni akabatzen?

—Saiatzeagatik ez dugu ezer galduko —oihukatu zuen normalean isilik egoten zen Ottok.

Eskua burdina bihurtu eta korrika hasi zen, Oliverri ukabilkada emateko asmoz. Baina, berehala, bere hatz puntak herdoiltzen hasi ziren. Bizkor baino bizkorrago besoa bere baitara bueltatu zuen eta hezur-haragizkoa zen berriz ere.

—Zu ere lotara! —berriz ere gas urdin hura jariatu zuen eta Otto lokartu zuen.

—Hurrengoa, lokartu beharrean, hil egingo dut. Benetan diot! Ongi ulertu nauzue!

—Bai, ez dute ezer egingo. Eraman nazazu gerrara, baina ez ezer egin nire umeei —erregutu zion Bernhardek.

—Ongi da. Bihar goizean goiz aterako gara.

4. atala

Orain bazirudien kartzela batean zeudela, beti barrakoiaren barruan. Gainera, orain berak zaintzen zituena ez zen agure atsegin hura baso polit batean. Orain munstro batek zaintzen zituen. Gertatu zitzaien gauza on bakarra zen berak bezalako jende asko ezagutu zutela barrakoi hartan. Hainbat lekutan gertatu zen haiei gertatutakoa eta ume asko berekin batera hasi ziren bizitzen.

Egun batean, goizean goiz, denak gosaltzen zeuden bitartean, txirrinak jo zuen.

—Denak kanpora, azkar! Ez da simulakroa! —oihukatu zien Oliverrek.

Mundu guztia bide sekretutik alde egiten hasi zen. Mundu guztia, Oliver izan ezik.

—Nora zoaz? Ez al dugu alde egin behar? —galdetu zion Miriamek Oliverri.

—Zuk alde egin eta kito! Tunel honetatik gobernu zentraleko defentsa egoitza batera ailegatuko zarete. Nik denbora emango dizuet Reparetakoak entretenituz.

Oliver ziztu bizian joan zen barrakoiaren kanpoaldera, gas bihurtuta.

—Geldi hor! Ez al diogu lagundu behar? —oihukatu zien Miriamek alde egiten ari ziren guztiei.

—Ezta pentsatu ere! Horrek hiltzea merezi du!

—Nik ez dut hori uste —entzun zitzaion Bernhardi.

—Bernhard? —galdetu zuten, harrituta.

—Bai, ni naiz.

—Hori ikusten dugu. Baina zer egiten duzu hemen? Ez al zindoazen gerrara?

—Hori gezurra zen. Zuek babesteko modurik onena hona ekartzea zen. Baina, Oliverrek bazekien zuek, gu defentsa egoitzan geundela jakinda, alde egiten saiatuko zinetela; beraz, hori asmatu zuen, zuek hemen seguru egoteko. Baina, antza denez, Reparetakoek egoitza hau ere aurkitu dute. Hortaz, orain Oliverri laguntzea dagokigu.

Bernharden haurrek laguntzea erabaki zuten, bai, eta baita beste haur guztiek ere, haien zaintzaileak egoera hartan ikusita.

Oliver kanpora iritsi zenean, Reparetako ehun eta berrogeita hamar soldadu aurkitu zituen.

—Aurrean duzuen akabatzen badugu, ongi sarituak izango gara! Eraso!

Era guztietako erasoak bideratu zituzten Oliverrengana. Baina batek berak ere ez zion kalterik egin, hesi berde garden batek gelditu zituen-eta.

—Zer? —galdetu zuen Oliverrek, harrituta.

—Benetan uste al zenuen bakarrik utziko zintugula? —esan zion Bernhardek.

—Nork egin du hesi erraldoi hau? Benetan liluragarria da.

—N-nik e-egin dut —esan zion Luisek hitz-totelka, horrelako hesi bat egiteak indarrrik gabe utzi baitzuen.

—Eraso berriro! —entzun zen, eta berriro eraso zuten.

Hesiak berriz ere eraso gelditu zuen; baina, oraingoan, Luisek konortea galdu zuen eta hesia desagertu egin zen.

—Kiara! Sendatu ezazu Luis, guk gizon hauek hauts bihurtzen ditugun bitartean —esan zion Vladimirrek.

—Atsegin dut ume hau —esan zuen Oliverrek. Eta gasa bideratu zuen Reparetakoenganantz.

—Gure txanda da erasotzeko. Zu, suaren mutikoa! Eman su metanoari!

Vladimirrek ezin izan zion irribarreari eutsi.

—Oraintxe bertan.

Sua piztu zuen eta metanoak eztanda egin zuen Reparetako hogeita hamar gizon harrapatuta. Ottok gorputza burdina bihurtu zuen eta bere eskuak, aizkora. Miriamek hiru gizon bere haluzinazio batean sartu zituen eta gizon bat hipnotizatu zuen beste hirurak hiltzeko. Annunziatak harea mugikorretan harrapatu zituen beste hainbat.

Bazirudien irabazi egingo zutela, baina zuten esperantza desagertu egin zen Reparetako beste hirurehun soldadu agertu zirenean.

—Entzun guztiok! Joan defentsa egoitzara! Azkar! —agindu zien Oliverrek guztiei.

—Baina alferrik izango da, Reparetakoek beren gizonen erdiak hona bidali badituzte.

—Zuek alde! Bestela hil egingo zarete!

—Eta zu ez al zara hilko?

—Ni bai! Baina gaur zuek ez zarete hilko!

—Egiazue kasu. Goazen! —esan zien Bernhardek denei.

Denak bazihoazen eta Miriamek atzera begiratu zuen. Oliver bere gorputza gas bihurtzen ari zen. Bolumena handitzen ari zen, ikaragarri handitzen, eta Reparetako soldadu guztiak estaltzen zituen. Sufre dioxido bihurtuta, soldadu guztiak intoxikatzen ari zen. Baina bolumena hainbeste handitu zuenez, handik gutxira hil egin zen.

Blas Esnal

Zuk ez dakizu

Zuk ez dakizu zer den mundua gainera erortzen zaizula ikustea.
Zuk ez dakizu zer den lagunik gabe egotea.
Zuk ez dakizu zer den maitatua ez zarela sentitzea.

Ez dakizu zer den denak zoriontsu ikusi eta zu triste egotea.
Ez dakizu zure senitartekoak gorroto zaituztela pentsatzea.
Ez dakizu zer den bakarrik sentitzea.

Ez dakizu zer den, halako batean, zu bezala pentsatzen duen pertsona bat bilatzea eta galtzea.
Ez dakizu zure ingurukoek zure izaerarengatik ez onartzea.


Nik bai.

Joana Lertxundi

Sentimenduen borroka

Maitasuna, bizitzeko guztiz beharrezkoa.
Ahaztu ohi dugun arren, da benetan baloratzekoa.
Badugunean, zaintzea iruditzen zaigu alferrikakoa.
Gertukoek irekitzen digute bihotza eta luzatu besoa,
maite gaituztela esan, guretzat axolarik gabeko diskurtsoa.
Hitz goxoak xuxurlatu, errepikakorra zaigun bertsoa.
Gure jarrerak ingurukoak urrundu, eta maitasuna badoa,
utziz soilik haizeak eramango duen arrastoa.
Orain, inoiz baino gertuago sentituz arriskua,
ez baitugu zauriak sendatzen zizkigun antidotoa:
hotzaren aurrean, besarkada batekin lortzen genuen beroa.
Sentituz ezinbestekoa, batzuetan zena arerioa.
Faltan botaz lehen iruditzen zitzaiguna absurdoa,
baina orain erregutuz barkazioa.

Candy Ostolaza



Arantza Igartua

Piramideen sekretua

Egipto Zaharrean kokatzen da istorio hau, Kristo aurreko 1325. urtearen inguruan. Herritarrak Tutankamonen agintepean zeuden; Akenatonen seme bakarra zen eta, horrenbestez, tronuan esertzeko oinordeko bakarra.

Faraoi gazte eta itxuraz ezjakin hark aitak utzitako inperio goibel eta lainotsu hura argitsu bilakatzea lortu zuen. Faraioia ez zegoen bakarrik agintepean, arrebare bazeukan. Biek itxura eta izaera bera zuten eta ematen zuten haien bizitzak konektatuta zeudela, haien arimak besarkatuta egongo balira bezala edo, Nilo ibaia eta ibaiertzeko inguruak elkartzen ziren bezala, lur oso emankorra emateko.

Jainko biziak ziruditen eta haien argiarekin argituz gero, inperioa gero eta argitsuago izango zen eta kanpoko etsaiak uxatzeko ahalmena zuten. Amonen, eguzkiaren jainkoaren, begiradapean, adi-adi hazten ari zen berriz inperioa, eta herria oso pozik zebilen, ni barne.

Egun batean, familia erreala nire hirira iritsi zen, Tebasera, inperio jainkotiar honen hiri kapitalera. Tutankamon eta emaztea ekitaldi bat egitera joan ziren, eta ni, armadako soldadu normal bat nintzenez, tropekin abiatu nintzen, nire jabe ahalguztidunaren atzetik; nire gorputza arriskuari begira jarrita, baina neure burua, kontzientzia eta garbitasuna nire jabeari begira.

Ekitaldian herriaren garaipen berriak eskertzeko hitzaldi bat eman zuten Tutankamonek, herritar guztiei zuzenduta. Faraoiaren eta emaztearen agerpenaren ondorioz, Tebas *piztu* egin zen: zirkulazio gehiago zegoen hiriko kaleetan, etxeak hutsik zeuden eta jendea kalean bilduta zegoen ekitaldia ikusteko eta, batik batik, entzuteko. Tutankamonek, harro eta bere eskuineko eskua ezkerreko bularrean jarrita herriari begira, eta bere begirada zerura zuzenduz, hitzaldia hasi zuen; arrebaren, armadaren eta biztanleen begiraden artean.

Dena ondo zihoan; baina, bat-batean, zerua lainotu egin zen, Amonek mezu adierazgarri bat eman nahiko balu bezala, eta ezusteko bat agertu zen eremu hartan: beste armada bat gerturatu zen, beste eremu batekoa, non, agian, eguzkiak ez zuten asko jotzen eta harea ez zen haren isla nagusia. Eremu hartan bazirudien ez zela denbora igarotzen, gelditzen baizik. Soldaduek itxura beldurgarria eta deabrutua zeukaten eta zaldi beltz eta zangarretan igota zeuden, eta agintari zatar, berekoi eta oldarkor batek zuzentzen zuten erasoaldi hura. Haren begietan odola, iluntasuna eta bere nahiak islatzen ziren eta iluntasuna kontrolpean zuela ematen zuten.

Hori ikusi orduko, jakin nuen zein ziren paisaia honetara etorri ziren atzerritar haiek. *Hititak!* pentsatu nuen. Alboko istorioek adierazten zuten bezala, hititak ez ziren tribu bat, baizik-eta leku ezjakin bateko arima gorpuzdunak, iluntasunaz eta botere zitalaz kontsumitzen zirenak.

Bi bandoak borrokatzen ari ziren bitartean, ni oraindik txundituta nengoen, pentsakor, eta, bat-batean, nire begiak Tutankamonengan eta beste agintariengan finkatu ziren. Haien begiak bata besteari begira zeuden eta begiek islatzen zutena ikusi eta sentitu nuen.

Bultzada bat sentitu nuen eta, bi aldiz pentsatu gabe, nire faraoiarengana abiatu nintzen korrika, hura babesteko. Besteak laban bat eskuratu zuen bere izterreko gerrikotik eta Tutankamoni labana sartzen saiatu zen.

Tutankamonengana berandu iritsi arren, lortu nuen haren heriotza eragozte, baina biak zaurituta atera ginen. Hititen armada desegin orduko, gainerako armada segituan joan zen laguntzera eta lortu zuten agintari odoltsu eta berekoi hura hiltzea. Armada iluna desagertu zen. Aitzitik, justiziaren balantza kontrako alde-rantz okertu zen: pisu guztia neuregan erori zen, uste zutelako ni nintzela haien mezulari eta konplize nagusia eta Tutankamonen erasotzailea. Arrasto gutxi zegoenez, heriotzara kondenatu ninduten. Amonen itzalean, denon itzalean. Betiko.

Tutankamon zurbil zegoen zauriak eragindako odoljararioarengatik, eta Amarnara bidali zuten, pertsona jainkotiar hura jaio zen lekura, senda zedin. Bere arrebak eta emazteak, Ankesenamonek, Menfisera ihes egin zuen, hainbat soldadurekin, denboraldi batean ez bueltatzeko. Horretaz solas egiten zuten Amarnara atxilotuta eramanez ninduten soldaduek. Nire eskuak askatzen saiatu nintzen eta horretaz kezkatzen nintzen une askotan, baina nire destinoa Amarnan zegoen, barrotez gainezkako gela batean, nahitaez.

Nire egonaldia oso jasanezina egin zitzaidan eta sei barrote haien aurretik baka-rrik iluntasun gehiago zegoen. Hainbat lastargik apaintzen zuten gela beltz hura. Hieroglifikoak kolorea eta mezua izan arren, niretzat ez zeukaten ez kolorerik, ez mezurik.

Ezustean, bi soldadu atera ziren ilunpetik, lastargiek argia ematen ez zuten leku-tik, aurpegi zurbil berarekin. Begiek pertsonen asmo edo sentipenak islatzen dituzte, eta hala zen. Haien begiek gorri gori bat hartu zuten eta, hainbat lastargi elkartuta, sua egin zuten katilu handi batean. Heriotza-zeremonia hasi zen.

Konturatzean, lau begien artean nengoen, haien begiraden harrapakin. Hala ere, haien desira egin aurretik, mirari baliotsu bat gertatu zen areto hartan: Tutankamon, erabat haserre, barkatzaile eta guztiz sendatuta etorri zen, eta beste biak belauniko jarriz, azalpen bat emanez hasi zen, bizitza bat salba zezakeen eta bizitza asko salba zitezakeen azalpena, azalpen jainkotiarra.

Malkoek nire aurpegia estali zuten eta Nilo ibaiko ura bezain garbiak ziren, Amonek malkoak argitu ez arren. Segituan, Tebasera abiatu ziren eta beste ekitaldi bat eginez, jainkoen izenpean, Tutankamonen jeneral bihurtu ninduen faraoiak


berak. Eta han, pilare hartan, ikusi nituen eguzkiaren distirak niri jotzen, eta hor ikusi nuen inperio baten argitasuna osotasunean, eta ikusi nuen argitasun hori hainbat eremutara iristen zela, Nilo ibaiaren luzera bezain urrunak. Ondoren, Tutankamonek eskerrak eman zizkidan denagatik eta esan zidan inportantea ez dela nondik hasi eta non bukatzen duzun bizitza, zer egiten duzun baizik; bizitza beti mailaz osatuta dago, eta zu zarela bakarra horiek igotzeko edo jaisteko.

Hortik aurrera, Tutankamonen esanetara jarraitu nuen lanean eta nire bizitzako lehen aldia zen jainko batengana hurbiltzen nintzela, eta nire laguntza emateko ahalegina egiten nuela.

Azkenean, nire jainkoaren ondoan hil nintzen hititen aurka egin genuen gerra batean. Bera ere hil zen; baina, gutxienez, lortu genuen Egipto iluntasunak ez kontsumitzea.

Baina hori beste istorio bat da. Bitartean, jarraituko dut nire jainko eta jabearekin zerutik argitasuna ematen, hil aurretik egin genuena, hil ostean ere eginez. Leku hau iluntasunak jan arren, beti egongo da argitasuna. Niloko inperioaren argia. Nilok zeharkatzen duen argia inperioarena da.

Axel Palau



Xiao Iturbe

Arto-soroa

—Lehenik has bedi Izaro! Adi dezagun dakien kondaira. Luzea edo laburra izan, ez du axola, gogoragarria izan dadin baizik.

Izarok, herriko jaunari poliki agur eginik, ireki zuen ahoa, eta hona nola mintzatu zen:

—*Aspaldi-aspaldi, larre honetan, arto-soro bat zegoen, eta haren jabea Zigor izeneko gizon marmarti eta berekoi bat zen. Zigor bere baserriaren aurrean zegoen eserita lasai arraio, arto-soroari harro beginatuz. Halako batean, hara non ikusi zituen lau haur bere baratzean.*

Lexuri, Urtzi, Uxue eta Ander goseturik zeuden. Ez zekiten zer egin eta basora masusta bila joatea pentsatu zuten. Bazekiten masustek ez zituztela beren tripak beteko; baina ezer baino hobea zela, behintzat, pentsatu zuten. Bidean arto-soro bat ikusi zuten arto ederrekin; laurak elkarri begiratu eta, pentsatu gabe, baratzean barneratu ziren. Arto batzuk hartu zituzten eta joaten hasi ziren, baina Zigorrek ikusi egin zituen eta garrasika hasi zen, horiek bere artoak zirela eta ea zer egiten zuten lapurtzen esanez. Lexurik, zaharrenak eta ardura-tsuenak, Ander txikia besoetan hartu zuen eta Urtzik eskua eman zion Uxueri eta denak korrika hasi ziren basoan barna.

“Haur madarikatuak!” oihukatzen zuen Zigorrek, bera ere lasterka hasita...

—Barkatu eragozte, baina ipuin honek ez du zentzurik. Zergatik joaten da haurren atzetik Zigor? Ez al dauka arto-soro oso bat beretzako bakarrik? Gizajoak, haur gaixoak! —esan zuen herriko jaunaren alabak.

—Nola ez duela zentzurik? Ni Zigorren alde nago! Haur horiek zertan ari dira Zigorrek egindako lan guztia zapuzten? Gosea dutela? Ba, egin dezatela lan! —egin zion aurre herriko jaunak.

—Bai, herriko jauna. Zuk erraz diozu hori, inoiz ez duzu-eta goserik pasatu, ezta lanik egin beharrik ere! —esan zion lilieta batek.

—Mesedez, segi beza kontakizunarekin Izaro —eskatu zion herriko jaunaren emazteak.

Eta Izarok honela jarraitu zuen:

Lau haurrak basoan barneratu eta Zigor atzean utzi zuten. Pozik zeuden beren artoekin. Gurasoak ere pozik jarriko ziren. Baina, urrunean, Zigor oihuka entzun zuten:

—Badakit hor zaudetela! Lasai, nik ez dut presarik eta hemen itxarongo dizuet.

Basoaren ertzean zegoen, bazekien-eta, basoan sartuz gero, haurrak azkarragoak zirela eta zuhaitzen artetik erraz ihes egingo zutela. Haurrak kezkatu egin ziren, ezingo zutela ihes egin pentsatuta.

—*Idea bat daukat! Nik harriak botako dizkiot eta zuek, bitartean, ihes egin dezakezue!*
—*proposatu zuen Urtzik.*

—*Ez, ez dugu hori egingo; beste ideia bat daukat. Entzun adi: masustak bilduko ditugu eta trukea proposatuko diogu.*

Zigorrek lau haurrak hurbiltzen ikusi zituen; baina, bere harridurarako, lasai zetozen, burua makur, barkamena eskatzeko prest.

—*Barka iezaguzu, arren, eskatzen dizugu, gosetuta geunden-eta.*

Uxuek harri bat hartu eta burura bota zion Zigorri. Antza, ez zuen ongi ulertu estrategia.

Herriko jaunari barre txiki bat atera zitzaion, denei barre egiteko baimena emanaz, eta denak barrez hasi ziren.

—*Uxue!*

—*Barkatu, Zigor! —lotsatu zen Uxue.*

—*Barka ezazu! Oraindik txikia da. Eta tori... hemen dituzu artoak. Sentitzen dugu.*

Marmarka, baina onartu zuen barkamena. Haurrak poltsikoetatik masustak hartu eta jaten hasi ziren:

—*Ummmm... Ze onaaaak!*

—*Bai, ze goxoak!*

—*Inoiz jan ditudan onenak!*

—*Zer pena ja ez direla gehiago geratzen!*

Zigor lasterka joan zen berengana eta, lotsatuta, esan zuen:

—*Egia esanda, nik ere sentitzen dut horrela jarri izana arto soil batzuegatik. Aizue, zer iruditzen nik zuei artoak oparitzea eta zuek niri... mmm... masustak?*

Haurrak barrez hasi ziren eta, gero, Zigor ere barrera elkartu zen. Eta han joan ziren denak, etxerantz bakoitzak gustuko zuena janez.

—*Orain ulertu dut ipuina. Kontua da bakoitzak bere buruan pentsatzen badu, gauzak ez direla oso ongi ateratzen. Aldiz, besteengan pentsatuz gero...*

Denek buruarekin baietz egin zuten, herriko jaunaren hitzekin ados zeudela adieraziz.

Izarok amaiturik, herriko jaunak eta inguruko liliak txaloka eskertu zuten kontakizun apartekoa. Izarok, alde batera eginik, belarriak zabaldu zituen hurrengo liliaren kondaira aditzeko.

Maxe Zinkunegi

Martxoak 8

Ahotsa ez dutenen partez
guk hitz egiten dugu,
jantzita emakumez,
mundua alaitzen dugu.

Indarkeriarik gabe
goazen aurrera,
urtez urte
hobetzen goazela.

Denon indarrak batuz,
justiziaren bila,
gure historia kontatuz,
hilaz hila.

Biktimak gutxituz,
egoera hobetuz,
lege batzuk aldatuz,
eskubideak berdinduz.

Denok batera
goazen aurrera,
gaur martxoak 8 dela.

Marwa Elghailani



Leire Olariaga

Natura

Natura,
lurreko arte eta kultura,
han landareak eta ura,
gaztelaniaz deskribatuz gero: *hermosura*.

Basoetan animalia asko:
orein bat, hiru txori eta bi oilasko,
seiek jaten dituzte hostoak a sako.

Uraren zikloak behar du denbora
ibaitik itsasora, itsasotik zerura
eta berriro ere zerutik ibaira.
Batzuetan gas eta besteetan likido,
horrelakoa da gure ura;
solido denean, izotza da hura.

Natura,
lurreko arte eta kultura,
han landareak eta ura,
gaztelaniaz deskribatuz gero: *hermosura*.

Jon Marquez



Franshesca Paez

Nortasun galdua

Begiak irekitzen ditut sabaira begira. Beste egun bat mundu zoro honetan. Ohetik altxatu, komunera joan eta aurpegia garbitzen dut. Hotza dago ura, baina ez dio axola, dagoeneko ohituta nago horretara. Sentsazio arraroa berriro, egunero bezala. Zerbait sentitzen dut nire lepoaren atzean, ispiluari erreparatzen diot eta begi berdeko neska bat dut zuzenean begira. Ile marroi argia, azal kolore argia eta ezpain arrosak. *Non egon zara?* galdetzen diot nire buruari. Non egon naizen, noiz egon naizen ala nor naizen, ez dakit. Norbaitek badaki, baina ez dio inori ardura. Norbait hori ezagutu nahi dut.

Sukaldean sartu eta infinitura begira jartzen naiz. Isiltasunaren zarata burrunbatsua da. Irratia pizten dut, bakarrik ez sentitzeko eta gosaldu egiten dut. Kafesnearen zapore mingotsa ez dut batere gogoko. Hala ere, ez dut uste egun bat goizean kafesnerik hartu gabe has daitekeenik.

Arropak soinean jartzen ditut. Fresko daude; izan ere, neguko aire hotzetan lehortu dira. Gainera, usain identifikagarri bat dute, umezurztegia gogoratzen didan usaina. Ez zaizkit oroitzapen txarrak etortzen gogora, baina bai aspaldikoak. Telazko poltsa hartzen dut. Albistetan gure planeta plastikoz beteta dagoela eta hori ikaragarri kutsakorra dela aipatu zutenetik, izugarri sartuta nago gai horretan. Hala, etxeko giltzak hartu, ateari danbateko eder bat eman bizilagunei egun ona opatzeko larunbat goizeko bederatzietan, bi bueltaz itxi eta erosketak egitera abiatzen naiz.

Kalean, lurrera begira, hanka bat bestearen aurrean jarriz nola ibiltzen naizen ikusten dut. Aurikularrak belarrietan *I Was All Over Her* entzuten. Begirada lurretik jaso eta begiak eraikuntzetako leihoetan finkatzen ditut. Familiak ikusten dira, umeekin, pozik daudenaren plantak eginez. Umeak gorroto ditut; eta asko, gainera. Agian umezurztegi batean hazia izatea da horren arrazoi nagusia. Gizarteak seme-alabak izatera bultzatzen gaitu emakumeak, baina zergatik? Hori norberaren hausnarketa da eta ez beste inorena.

Janari-dendan sartzen naiz.

—Kaixo.

—Kaixo, Maia! —Lourdes da, beti dendan sartuta dagoen andre bat. Dendan bizitza gehiago egiten du bere etxean baino. Hori pentsatzen dut nik, behintzat. Herriko atsoekin marmarrean jarduten da egunero.

—Jarriko al didazu ogi barra bat, mesedez?

—Jesus, neska! Ederra aurpegia daramazuna! Amesgaizto bat izan al duzu?

Nire garunean dagoeneko pikutara bidali dut, baina irribarre txiki batekin erantzuten diot. Beharbada, nire begi berdeen azpian daramatzadan begi-zuloek dute iruzkin horren errua. Baina gaur ez dut amesgaiztorik izan; are gehiago, oso ondo egin dut lo. Hala ere, zein da gauean amets egiteko arrazoia? Norbaitek azaltzea eskatu izan dut beti. Nik goizetan egiten dut amets.

—Eskerrik asko.

—Zuri gazte! Egun ona izan!

Dendako atea zeharkatu eta, hotzaren hotzaz, dardara batek goitik behera astintzen nau. Etxerako bidea berrartzen dut. Zerua grisa dago eta umeek kometak jaurtitzen dituzte. Zerura begira inon aurkitzen ez dudan bakea aurkitzen dut. Halako batean kale kantoian biratu eta norbaitekin tupust egiten dut. Lurrera erortzen gara biok.

—Ene! Barkatu!

Neska gazte bat da; nire adinekoa, gutxi gorabehera. Ile iluna du sorbalden altueran moztuta. Begi marroiak ditu eta orezta txikiak sudur gainean. Beroki beltz bat dauka jantzita. Ez dakit zergatik, baina atentzioa deitzen dit. Ezaguna egiten zait.

—Barkatu. Nire errua izan da —esaten dut.

—Ez, ez... lasai —eskutik heltzen nau eta lurretik altxatzen gara.

—Agur!

—Agur, bai!

Bakoitza bere aldetik joaten hasten garenean, konturatzen naiz koaderno marroi bat dagoela lurrean. Neskarena, segur aski. Ematera joaten naiz; baina, burua biratu orduko, ez da inor ikusten kalean eta, beraz, nirekin batera eramaten dut etxera.

Etxean, erosketak sukaldeko mahai gainean utzi eta, korrika, egongelara joaten naiz sofán esertzera. Parean, mahaitxoaren gainean, koaderno misterioitsua jartzen dut. Pare bat minutuz geldirik geratzen naiz koadernoari begira, begiak erdi itxita. Ireki dezakedan ala ez galdetzen diot nire buruari. Azken finean, pertsonala izan daiteke eta niri, behintzat, ez lidake graziarik egingo edonork nire koadernoak begiratzeak. Baina bakarrik nago, nola ez, eta inork ezin du ikusi zertan nabilen.

Koaderno irekitzen dut, eta ezin dut sinetsi zer jartzen duen bertan.

—Murumendi umezurztegia! —egiten dut garrasi.

Aurpegia zuri geratu naiz, normalean baino gehiago. Hori izan zen nire umezurztegia. Jaioberria nintzela, nire guraso ezezagunek eraman ninduten hara.

Abenduko gau batean, atea jo eta bertako emakumeek sehaska baten barruan aurkitu ninduten. Segituan sartu ninduten barrura eta, handik aurrera, han bizi izan nintzen. Lagunak egin nituen, baina gutxi batzuk besterik ez: Denis, Maria, Urko eta ni. Gu laurok, umezurztegiaren aurrean. Zoritxarrez, bata bestearen atzetik eraman zituzten handik. Lehenik eta behin, Maria, 5 urterekin. Ondoren, Denis, 7 urterekin eta, azkenik, Urko, 8 urterekin. Ni bakarrik geratu nintzen. Egia esan, denbora asko pasatu da eta ez ditut haien aurpegiak gogoratzen. Nire pentsamendu bitxien artean galduko zen haien presentzia. Inoiz ez zen inor nire bila etorri. Hamar urte bakardadean pasatu nituen eta horrek pertsona oso gogorra egin ninduen. 18 urte betetzean, nire kabuz joan nintzen toki hartatik eta gaur arte, 25 urterekin, bakarrik bizi izan naiz. Ezagutzen dudak familiarik ez daukat eta lagunak... Batek daki zer gertatu zen haiekin. Baina ez dakit zergatik, kalean talka egin dudak neskaren aurpegia etorri zait burura.

Koadernoaren atzeko aldean helbide bat dago. Bertara joatea erabakitzen dut: seguruenik kaleko neskaren bizilekua izango da eta koaderno itzultzeko aukera edukiko dut.

Hurrengo goizean esnatu, gosaldu, koaderno hartu eta kalera ateratzen naiz ibilbide finko batekin. Paper gainean tinta beltzez idatzita dagoen helbidera joaten naiz. Herritik pixka bat aparte dagoen txalet baten parean geratzen naiz, eskuak izerditan.

DIN-DON!

Eskailetan behera norbaiten urratsak entzuten dira aterantz gerturatzen. Inurri pausuak dirudite. Atea irekitzen da, baina barrua oso iluna dago. Ez da silueta beltz bat besterik ikusten. Agurtu egiten dut pertsona, atea nork ireki didan ez dakidan arren. Orduan, atea guztiz irekitzen da. Bera da.

—Zu ez al zara atzoko neska? —galdetzen dit, eta bere begiradak nire gorputzeko zati txikiena ere nola ikuskatzen duen konturatzen naiz.

—Bai. Barkatu horrela agertzea, bat-batean, baina uste dut hau zurea dela. Atzo, topo egin genuenean, lurrera erori zitzaizun —bi eskuak luzatzen ditut beregana, koaderno erakutsiz.

—Bai! Nirea da! Denbora guztian etxea goitik behera arakatzen jardun naiz horren bila. Uste nuen galdua nuela.

Liburuxka ematen diot, eskerrak ematen dizkit eta, atea guztiz itxi baino lehen, hanka jartzen dut. Jakin-min izugarria sortu zitzaidan Murumendi umezurztegia irakurri nuenean. Ez nuen pentsatzen horrela, besterik gabe, handik alde egitea. Ez nintzen neska haren etxetik joango ezer galdetu gabe.

—Murumendi umezurztegia —esaten dut.

—Zer esan duzu?

—Barkatu. Ezin izan nion eutsi eta koaderno ireki nuen. Murumendi umezurztegia jartzen zuela ikusita, txundituta geratu nintzen. Umezurztegi hartan hezia naiz eta gauza bat galdetu nahi nizun.

—Ez esan gehiago. Sartu zaitetz barrura.

Etxean sartu eta segituan etortzen zait tximiniaren usaina. Nire etxearen bikoitza da. Oso polita. Norabide guztietara begiratzen hasten naiz.

—Eseri nahi duzun lekuan.

—Ongi da.

Oraindik ez dakit nola izena duen neskak, baina konfiantza handia transmititzen dit. Egongelako eserleku batean jartzen naiz argazki batzuk begiratzen. Bat-batean argazki batek atentzioa deitzen dit: neska ageri da, bere lagunekin batera. Badirudi bere urtebetetzea ospatzen ari direla. Hobeto begiratu eta atzealdean nola *Zorionak, Maria!* jartzen duen ikusten dut. Maria... Maria! Umezurztegiko laguna! Orduan, sumatzen dut neska nigana hurbiltzen dela, eskuetan argazki bat daramala. Argazkiari begiratzen diot. Ezin du egia izan. Txikitan umezurztegian atera genuen argazkia da! Maria eta ni bata bestearen ondoan geunden bertan.

—Maia? —galdetzen dit, malkoek begiak bustitzen dizkioten bitartean.

—Maria?

Orduan sekulako besarkada ematen diogu elkarri.

—Banekien berriz ikusiko ginela! Banekien!

Inoiz sentitu ez dudan sentimendu bat pizten zait. Norbaitekin hitz egiteko aukera sentitzen dut. Nire barruko guztia botatzeko askatasuna. Orduan, Mariari kontatzen dizkiot pasatu zaizkidanak malkoen artean. Ez daukadala familiarik, ezta lagunik ere. Ea familia aurkitzen lagunduko didan galdetzen diot. Berehala baietz esaten dit eta bere adopzio-paperak erakusten dizkit. Umezurztegitik noiz atera zuten jartzen du bertan, eta baita noiz sartu zen ere leku hartan.

—Egon...

Ni sartu nintzen egun bera. Abenduko gau batean...

—Itxaron... Murumendi umezurztegiko emakumeek argazki bat eman zidaten handik atera nintzen egunean. Badirudi argazki bat neramala sehaska barruan nengoenean. Argazki horren laguntzaz ezagutu nuen nire familia biologikoa, baina bertan jende gehiago zegoela iruditzen zait. Ez dakit non daukadan argazkia, baina aurkitu egin behar dut. Agian lagungarri zaigu.

—Ongi da. Aurkitu egin behar dugu, baina oso berandu da. Etxera joango naiz.

—Ez izan tuntuna! Gera zaitetz hemen. Bakarrik bizi naiz eta ez duzu inor molestatuko.

—Ongi da. Bakarrik baino hobeto norbaitekin batera lo egitea.

Goizean goiz begiak irekitzen ditut. Logela arraro xamar dago apaindua. Mariaren gustuak izango dira. Eskailerak jaisten ditut eta egongelako armairu eta tiradera guztiak hankaz gora daude. Ematen du Mariak gau guztia pasatu duela argazkia bilatzen, baina ez dago haren arrastorik beheko pisu guztian. Beraz, sofan esertzea erabakitzen dut. Lo egongo dela pentsatzen dut, goiko pisuan norbait korrika sumatzen dudan arte.

—Maia!

Eskailerak jaisten ditu, besoak airean dituela, eta argazki bat darama eskuan. Urrutitik nola begiratzen nauen sentitzen dut.

—Aurkitu dut!

Argazkian bi familia ikusten dira. Familia bakoitzak jaioberri bat dauka sehaska banatan. Horietako bat Maria da. Eta bestea... Nire sehaska da! Argazkia seinalatzen dut.

—Ja! Aurkitu zaituztet! —ahoan irribarre bat sortzen zait. Orain arte inoiz sortu ez zaidan irribarrea.

Malen Albeniz

Bizitzaren amildegian

Beltza. Edo zuria. Ez dakit ezta kolore bat den, baina bai hutsunea dela. Ez dago ezer, ez soinurik, ez denborarik... ezereza. Ez dut ia ezer gogoratzen; baina, aldi berean, dena gogoratzen dut. Nire bizitza guztia... baina nire oroitzapen gehienak ez dira alaiak. Ez dira gogoratu nahi izaten ditugun horiek. Bestelakoak baizik. Izan ere, horietan laburtzen da nire bizitza, eta horrela jarraituko duela ematen du. Beno, esnatzen banaiz.

Une batzuen ondoren, berdin jarraitzen du hutsuneak; baina hobeto ulertu dezaket. Hutsune hau putzu moduko bat da, non iraganean behin baino gehiagotan murgildu izan naizen. Zergatik? Ba, ez dakit zehazki esaten. Batzuetan, ez nuelako beste aukerarik; gutxi batzuetan, amore ematen nuelako; eta beste batzuetan... hobeto sentitzeko nuen gauza bakarra zelako.

Kontua da putzu horrek, nahiz eta oso hutsa iruditu, milaka eta milaka pentsamendu gordetzen dituela barruan, mundu honetara etorri nintzenetik erai-
kitzen joan naizenak. Eta orain bertan aurkitzen naiz, aurrez aurre, ea zer duen niri eskaintzeko.

Begira ari naiz, baina ez dut ikusten ez nekien ezer. Beti izandako kezka eta negarrak, benetako irribarre bat edo beste, eta lepo arrazoi... Arrazoiak... zein ulergarriak diren, betiere esaten dituenaren baitan.

Nik arrazoi asko nituen. Nik, behintzat, hori sinesten dut. Baina seguru nago edozeinek entzungo balitu, ez zuela ontzat hartuko bat bera ere. Horregatik iru-
ditzen zait gaitzestearena hain erreza eta, aldi berean, saihestu beharrekoa.

Ohituta gaude gure iritzia ematera. Azken finean, ez al dago hitz egiteko askata-
suna? Lepoa jokatuko nuke hori behin baino gehiagotan entzun dugula, baita erabili ere. Bai, noski, denon iritzia ongiatorria da, eskatua baldin bada. Batak bestearen iritzia eskatzen badu, edonolako dela iritzi hori, prest dago entzuteko eta onartzeko. Baina ezer jakin gabe —zure iritziak non heldu eduki gabe— hitz egitea, hori ez dago ondo.

Zuk edozein arazo edo bestelakorik duzula, edozeinek arinkeriaz kritikatzeko
bazaitu, gaizki sentitzen zara, minduta ere bai, pisurik ez duen iritzi batengatik. Beharbada, ezezagun bat aholku on bat emateko gai da, eta horiek, normalean, ongiatorriak izaten dira. Gaizki dagoena kritika suntsitzaileak egitea da, lau haizeetara zabalduz.

Eta nahiko seguru nago hori ari dela gertatzen oraintxe bertan. Ni hemen nago, nire putzuan, edo hobeto esanda, koman, murgilduta; baina, jakiteko, ez zait

beharrezkoa ikustea kanpoan zer gertatzen ari den. Edozein nire pertsonari buruz iritziak eraikitzen eta teoriak sortzen egongo da, egia nik bakarrik dakidanean.

Hori izan da betidanik txunditu nauen gauza bat. Bakoitza mundu bat gara eta, nahiz eta ondoan duguna oso ondo ezagutu, inoiz ez dugu guztia jakingo berari buruz, eta ez dugu jakingo bere buruak nola funtzionatzen duen. Nire kasuan, adibidez, beti jo izan dut nire burua izugarrizko mundu zabaltzat. Lorategi bat bezala, non ideia, pentsamendu, asmo... erabat zoragarriak gordetzen ziren. Eta oraindik gordetzen dira. Izan ere, mundu honetan gehien maite dudana pertsona ni naiz. Aurrera... pentsatu nartzisista dela... Zer nahi duzu esatea? Besteei maitasuna zabaltzeko, aurrena zure burua maitatu behar duzu.

Hori esan ondoren, nik egindakoa zentzugabekeria bat bezala ikus daiteke. Hainbeste maite banintzen, zergatik egin nire buruaz beste? Ba, begira, hortxe dago arrazoa: gehiegi maite nuelako nire burua. Hainbeste maite nuen, ezin nuela onartu horrenbeste merezi zuen pertsona batek hain gutxi jasotzea, horrela bizitzea, hain zorigaiztoko. Nahiago nuen hilda egon horrela bizitzen jarraitu baino. Hori, batzuentzat, berekoa izatea da, baina inoiz ez dut ulertu zergatik. Egia da ingurukoek asko sufritzen dutela; baina, batzuetan, zure burua besteen aurretik jarri behar da. Hala ere, nahiz eta nik nire erabakia hartu, bizitzak esango du azken hitza. Bizitzak, jainkoak, karmak... nahi dena, baina berak erabakiko du nire etorkizuna.

Bitartean, hemen nago, koman. Putzu honetan ditudan oroitzapen guztiak eraikineko amildegian ere banituen, bueltaka. Alde batetik bestera, nire buruan zurrunbilo moduko bat eginez. Hotza nabaritzen zen eta, lurrera begiratzen nuen, oilo ipurdi ikaragarri bat sentitzen nuen gorputz guztian, eta zalantza... ea hori zen aukerarik onena. Oraindik, bizitzak eskaini didan pausa honetan, galdera hori egiten diot nire buruari.

Pentsatzen hasi, eta zer izan zen niri hura egitera gidatu ninduen? Zaila da esaten. Dakidan gauza bakarra da ez nintzela zoriontsua. Hori gauza askorekin lotuta zegoen: nire bizitza pertsonal kaxkarra, gizarte are eta okerragoa...

Nire bizitzan zehar zenbat gauza etorri zaizkidan burura! Eta bat gure gizartea da. Erabat galduta gaude, oihan batean bezala. Esan dudana bezala, nork bere burua maitatu behar du, baina horrek ez du esan nahi ondokoari ez zaiola lagundu behar. Ez gara batere eskuzabalak gure ingurukoekin, ez dakigu altruismoa aplikatzen. Eta horrekin eremu denak estaltzen ditut. Batetik, izugarrizko gorrotoa eta xenofobia dago, bai maitatzeko, bai garen bezalakoak izateko, bai gure kultura edo arraza mantentzeko, bai horien artean nahasketak egiteko, bai emakumea izateko... ezin gara kalera lasai irten, ezin gara horrela lasai bizi, edozein momentutan edozein arrazoirengatik erasotuak izango garela era batean edo bestean. Bestetik, politikan sartzan banaiz, amaierarik ez nuke izango.... Ez gara konturatzen, baina

sistemaren txotxongiloak besterik ez gara. Oso garrantzitsuak eta askeak sentitzen gara, baina erabat dominatuta gaude. Pentsatzen hasi, eta sistema gidatzen duena pertsona multzo bat da, dirua eta boterea bakarrik nahi duena. Eta pertsona horiek esaten digutena egiten dugu, nahiz eta pentsatu guk nahi duguna dela. Prentsan ateratzen den dena sinesten dugu, baina ez dakiguna da albiste eta informazio horiek sistemak kontrolatutakoak direla, eta berari interesatzen zaiona bakarrik jakingo dugula, berari komeni zaion eran azalduta. Askeak sentitzen gara; baina, pentsatzen jarrita, kaiola batean dauden txoriak gara, sistemak jaten noiz emango ote digun zain.

Eta, kaiola aipatu dudanez, ederto etortzen zait beste alor bat komentatzeko: nire bizitza pertsonala. Izan ere, horrela sentitu izan naiz nire bizitza guztian: kaiola batean giltzapetuta egongo banintz bezala. Beti sentitu izan dut Basauri ez zela nire tokia, ni ez nengoela bertarako egina. Gainera, lagunekin ere ez nenbilen oso fin. Esaten den bezala, nahiz eta jendea eduki inguruan, berdin-berdin sentitu zaitezke bakarrik.

Baina orain, hausnartzen ari naizela... ez, ez zen aukera egokiena. Normala da batzuetan ahul egotea, zure bizitza guztian ez izatea zoriontsua, baina ez nuen saiatu behar nire buruaz beste egiten. Azken finean, nire burua hainbeste maitatuta, bizitzeko aukera gorde behar nuen, bizirik egoteko aukera operari bat baita. Horregatik, komatik ateratzea erabakitzen dut, putzu honetatik ihes egitea. Bai, ateratzerakoan, berriro aurkituko nintzateke lehen bizi nintzen errealitate zorigaiztokoan, baina ahaleginak egingo nituzke hau jasateko eta, ikasketak bukatzerakoan, alde egingo nuke, azkenik zoriontsu izateko.

Nire jarrera-aldaketa honekin, hutsunetik urruntzen hasten naiz, eta, bat-batean, berriro argia ikusten dut. Begiak ireki, eta berriro bizitzan nago.

—Ai, Ekiñe, Ekiñe! Esnatu egin zara, esnatu egin zara! —oihu egiten du nire amak malko artean.

Bai, askotan egongo zara momentu ahuletan. Baina beti gogoratu: beste inor baino gehiago, zu zara zure lagunik eta sostengurik onena; hortaz, inoiz ez utzi lurreraino erortzen. Beraz, ez ahaztu bakoitzak merezi duena jasotzen duela, eta gauza onak heltzear daudela.

Narrea Arriaran

